



ARGIA

ERNAIK 10 URTE

Belaunaldi berriaren txanda

26-31. orrialdeak

#2.820 | 2023 / 04 / 09 | 4,00 €



**Gobernuak
bideratzen dabilen
inbertsio-funtsa**

12 | BLACKROCK



**"Humanitate
zientziek debatea
laguntzen dute"**

16 | IRENE VALLEJO



**"Proiektu asko
tiraderan gelditzen dira,
ezohikoak direlako"**

44 | 1545 ARGITALETXEA

 ARGIA Azoka



Prezioa **32 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: MARISOL RAMIREZ / FOKU

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | RUBEN SÁNCHEZ
- 23 | CASTILLO SUÁREZ
- 24 | ROBER GUTIÉRREZ

Finkoak

- 39 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



52 | PALMIRA DUAL JIMÉNEZ
Ijito euskaldun gazte eta feminista
elkarrizketatu du Aitziber Zapirainek
Argi-Kontra sailean. Arrazismoaz eta
amesteko eskubideaz mintzo da.

ASTEBETEZ JAI

Oporrak hartu ditugu astebetez,
beraz, hurrengo astean ez duzu
astekaririk jasoko. Apirilaren 23ko
zenbakiarekin itzuliko gara.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Wall Street-eko erregearen
kontseiluei segika dabilta
geroz eta gobernu gehiago**

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | IRENE VALLEJO

**“Mitoak gramatika unibertsal
baten antzekoak dira”**

Reyes Ilintxeta

26 | POLITIKA | ERNAI

**Hamar urtez bizitzeko
modu bat borrokatzen**

Leire Artola

32 | EKONOMIA | AIALA ZUBIETA BERTIZ

**“Ingurumenean ere enpresa txikiok
gure norabidea jarri behar dugu”**

Urko Apaolaza Avila

36 | HEZKUNTZA

Ongizatearen arrakasta

Lide Iraola

44 | KULTURA | 1545 ARGITALETXEA

**“Gazteak ez dira soilik liburu
interesgarriekin literaturzaletzen,
haiekin egon behar dugu”**

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Ezaguirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Leire Rodriguez, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliatze beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



MENDEBALDEAREN IZENEAN

20 urte bete ditu argazki honek, baita AEBek, Europako bere mariatxiek lagunduta, Irak inbaditu zutela. "Suntsipen handiko armak" hondatzea eta herrialdea "askatzea" izan ziren argudioak. Herrialde bat birrindu egin zuten: milioi erdi irakiar baino gehiago erail zuten, gehienak zibilak, eta zazpi milioi desplazatu eragin. Bi hamarkada geroago, Irak fakzio sektarioetan banatuta dago, biztanleriaren laurdena pobrezian bizi da eta gerrak aurrera darrai. AEBetako 2.500 soldadu Iraken daude, eta Kongresuak gerra jarraitzeko emandako baimenak indarrean jarraitzen du. Gainera, inbasioak Estatu Islamikoa sortzeko giroa eratu zuen. Gezurra lagun, masiboki hil, suntsitu eta torturatu zuten, zigorgabetasun osoz. Demokraziaren eta Mendebaldearen izenean.

📷 Jean-Marc Boujuren 2003ko martxoaren 31ko argazki ikonikoa. Aita izuak jotako 4 urteko semea kontsolatu nahian, AEBetako armadaren atxilotze zentro batean (An Najaf-en).

🔴 AXIER LOPEZ



Epai euskarafobo berria, euskaraz funtzionatu nahi duten instituzio publikoen aurka

IRATI IRAZUSTA JAUREGI

Arlo publikoan aritzeko Eusko Jaurlaritzak abiatutako lehiaketa batean, aurkezten diren enpresei eskatu zaie langileek euskara maila egokia izatea, administrazioarekin euskaraz aritu ahal izateko. "Inposizioa" dela iritzita, bertan behera utzi du eskakizuna EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak.

Hezkuntza Sailak eskola garraioari lotutako kontratazioan jarritako baldintzekin ados ez eta auzitegiatar jo du enpresa batek, tartean hizkuntza eskakizunagatik. Lehiaketan ageri diren baldintzen arabera, administrazioak kontratatutako duen enpresak –zeinak zerbitzu publikoa emango duen– bermatu behar du langileek euskara maila egokia dutela, administrazioarekin dituen harremanetan euskaraz aritu ahal izateko. Bada, enpresari arrazoia eman dio otsailean Administrazioarekiko Auzietako Salaren 1. Atalak.

Honela dio ebazpenak, *Berriak* jaso duenez: "Areto honek aurrez ere esan izan du ezin zaiela inposatu enpresa pribatu bateko langileei, hizkuntza irizpi-

"Euskararen biziberritzean eta normalizazioaren alde hartzen den neurri bakoitzeko, epaileak agertzen dira herritarron eskubideak are gehiago murrizteko"

deei dagokienez, langile publikoen errekrimendurik".

Arlo publikoan aritzen diren enpresei eskakizun hori egitea ez da berria, eta auzitara eraman den lehen aldia ere ez da, baina inoiz ez da aurkako ebazpenik eman. Epai honek aurrekaria ezartzen du ordean, administrazioarekiko harremanetan enpresek erabili behar duten hizkuntzaren inguruan, eta euskaraz aritu nahi duten udal, aldundi eta oro har erakunde publikoen aurka egiten du. Zer

eta epai euskarafoboen bolada betean.

Aurrekaria ezartzen du: orain arte, enpresek bezeroekin eta herritarrekin izan behar duten hizkuntza harremanaren inguruan eman dituzte euskara eskakizunaren kontrako epaiak –azkena, Uliazpi kasua–, baina oraingo honetan enpresek administrazioarekin izan behar duten hizkuntza harremanaren inguruan erabaki du Justiziak.

Eusko Jaurlaritza helegitea jarri ala ez aztertzen ari da, *Berriak* jakinarazi duenez.

"OSO LARRIA"

Euskaingintzaren Kontseiluak "oso larritzat" jo du sententzia, "administrazio publikoek euskaraz funtzionatu ahal izatearen aurka" jotzen duelako. "Euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi judizialean" kokatu du epaia, "ebazpen isolatu bat izatek urrun". Kontseiluak salatu du azken urteetako sententziak "euskaraz bizitzeko espazioak murrizten" ari direla, herritarren eskubideak kaltetuz.

Kontseiluak kontratazioetan hizkuntza-klausulek duten garrantzia azpimarratu du, "egun gaztelera nagusi den administrazioa eta zerbitzu publikoak euskalduntzeko urrats gisa".

"Euskararen biziberritzean eta normalizazioaren alde hartzen den neurri bakoitzeko, epaileak agertzen dira herritarron eskubideak are gehiago murrizteko".

Kontseiluak defendatu du administrazioak eskumen osoa duela harreman euskaraz egin dadila arautzeko, euskara hizkuntza ofiziala den momentutik. "Zerbitzu publiko bat emango duten enpresek ez dituzte herritarrei dagozkien eskubide berberak, eskubideak herritarrei dagozkielako eta ez enpresei". Ohartarazi du eskola-garraio publikoa Bizkaiko ikastetxe publikoetarako izanik, zerbitzu hori jasoko duten herritarren hizkuntza-eskubideak urratzeko arriskua egon daitekeela. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Oporrak



UXUE APAOLAZA LARREA

Azken aldian, maiz amaitu dut erlijioez hizketan, ez sako-negi; eta atea izateaz, alegia, jainkorik gabe bizitzeaz. Hemen katolikoak izatea egokitu zitzaigun, eta katolizismoak egitura izugarriak izan ditu, eta dauzka. Zaila da frankismoaz ez gogoratzea, zaila da inmatrikulazioez ez gogoratzea, zaila da bortxatu dituzten haurrez ez gogoratzea, zaila da lapurtu dituzten haurrez ez gogoratzea, bahituta edukitako emakumez, senarren etxean, edo egoitza maltzurretan, eta abar, eta abar.

Ni atea naiz, baina uste dut beharren bat ondo ase gabe geratzen zaigula sinesgogorre, horregatik agian katolizismoa erantzi orduko bete ditugu armairuak beste mila sinesmenez. Giza garuna ez dakit noraino dagoen prestatuta zoria guztiz onartzeko, eta zoria ez bada, kontrolatzen ez dituen makroegiturek erabakiko dutela bere partez, eta kontroltxo bat lortzeko bidea ez dela ez dakit zer konstelazio (erraza da hori), bide kolektibo oso zail bat baizik.

Atea izanda ezin dut zure alde errezatu beste zer egin dezakedan bururatzen ez bazait. Atea izanda, baina baita morala ere, noski, ez daukat barkatuko nauen jainkorik, eta morala ere, zaila da barneratutakoa berrikusi eta ondo/gaizki erabakitzea.

Katolizismoak beharrezko gauza batzuk ere utzi dizkigu. Doluaren epeak; dolurako beharrezko agur ekitaldiak; buruak atsedean hartzeko edo gogo goratzeko txiki egiten gaituzten egoitzak, edo ibilian pentsatzeko klaustroak. Katolizismoa, gainera, nahiko festazalea ere bada. Lan egiteari uzteko opor egunak utzi dizkigu, oraintxe datozkigunak, adibidez; jainkoa dutenek hura zain dezatela egun libreetan, ateo maiteok, ea asmatzen dugun guk geure burua zaintzen, barkatzen, geure buruak ez jainkotzen, eta tragediaren ertzean elkarri gerritik heldu, eta hil arte, lanean berriro hasi arte, barkatu, dantzatzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Polizia

Gazte bat jipoitu eta sudurra hautsi diote udaltzainek Gasteizen, patinete elektrikoan ihes egiten saiatzeagatik. Gaztearen aitak jakinarazi du adingabeen fiskaltzak hiru delitu larri egotzi dizkiola semeari, eta udaltzainei aldiz, delitu arina baino ez. "Horrelako zerbaite espero genuen, baina ez hain lotsa gutxirekin jardutea".

Amiantoak

Petronor eta Iberdrola amiantoagatik gaixotutako langile baten osasun arazoaren erantzuletzat jo ditu epaileak, obretan beharrezko segurtasun eta osasun neurriak ez betetzeagatik. Legazpiko Patricio Echeverria enpresako langile ohi baten alargunari ere pentsioa onartu diote, senarra amiantoak hil zuela onartuta.

Energia

Nafarroako ubideko 57 kilometroak eguzki-plakekin estaliko dituzte. Nafarroako Gobernuak bideratuko du proiektua eta ubidea estaliko du eguzki-plakekin energia berriztagarria sortzeko. Ubidea iparraldetik hegoaldera doa, 57 kilometro ditu aire zabalean eta lehenbizi lizitatuko den zatiak hamar kilometro ditu.

Pobreziaren kontrako “euskal sistema”



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

EAEko parlamentuan aurrera egin du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lege aldaketak. Badago zer aztertu legearen eztabaidak, aldaketa egiteko ezker zein eskuin egin den akordioak, eta legeak ekartzen dituen berrikuntzak izan duten oihartzun eskasari buruz. Protesta gutxi ikusi dugu, eta ezin ulertu legea begi onez baloratu delako denik, sindikatu eta eragile sozialen eskutik kaleratu diren azterketak oso kritikoak baitira.

Lege aldaketak ez du “Euskal Sistema” deiturikoa bazterketa sozialaren eta pobreziaren kontrako tresna gisa zabalduko, ezta indartuko ere. Izan ere, erreformaren muinean, sistemaren izaera ankerra trinkotzen da: babes bila jotzen duenak erakutsi, justifikatu eta bere bizimoduan islatu beharko du sistemaren babesa behar eta merezi duela. “Euskal Sistemak” ez du pobrezia borrokatzeko inolako konpromiso eta erantzukizun berririk bereganatzen. Kontrara, prestazio publikoak jasotzeko baldintzak gogortu dituzte, horiek eskuratzeko bideak zailagoak izango dira, eta hogeit langile jarriko dituzte pobrezian bizi dena benetan pobrea dela eta pobre bizi dela konprobatzeko. Kontrol soziala, bi hitzetan.

Estigmatizazioa eta zigorra, diru publikoaren erabilpen egokiaren eta neurrizkoaren izenean. Pobreziaren ikuskaritza bat da, baina ez arazoa zenbaterainokoa den ikusi dezagun. Lan ikuskaritza indartzea, etxeko langileei lan ikuskaritzara jotzeko eskubidea ziurtatzea, edota iruzur fiskalari aurre egiteko ikuskari gehiago jartzea politiko publikoak indartzeko diru sarrerak handituta... hurrengorako gelditu dira. ●



UPO.ES

Enpresa-medikuak erabaki dezake noiz itzuliko zaren lanera

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Laneko baja arinak eta espedienteak, mutualitateen esku gera daitezke ia erabat Hego Euskal Herrian. Espainiako Gobernuak erkidegoei helarazi die proposamena, eta aski da Osasun sailburuak dokumentua sinatzea. LAB sindikatuak egin du publiko.

Mutualitateek kudeatuko lituzkete “langileen gertakizun arruntak” eta horien inguruko tratamenduak, interbentzioak, frogak, errehabilitazioak eta bestelakoak, baita alta-proposamenak ere. Gertatzen dena da, familia-medikuak, prozesu horiekin edo alta-proposamenarekin ados ez dagoela esateko, bost eguneko epea izango duela, eta kontraktorik ez badio edo erantzunik ez badago, mutualitateak dioena egingo dela. Gaur egun, azken hitza oso-osorik, baiezkoa edo ezezkoa ematea, familia-medikuaren esku dago; LABek publiko egin duen dokumentuaren arabera, gauzak alda daitezke.

27. orriko dokumentuan, hutsuneak sinatu eta eskumen aldaketa baimentzen dutela jakinarazi dezakete autonomia erkidegoetako Osasun sailburuek. Oraindik ez dago ez Jaurilaritzaren ez Nafarroako Gobernuaren asmoen berririk.

Espainiako Gobernuak argi adierazten du, lehen puntutik, osasun zerbitzu publikoko itxaron-zerrendak eta karga asistentziala arintzeko helburua duen egitasmoa dela.

“OSASUNA BIGARREN PLANOAN”

“Honek orain arteko logika aldatzen du eta Osasun Sistema Publikoko medikua enpresa pribatu bateko medikuaren aginduetara jartzen du”, adierazi du Inko Iriarte LAB sindikatuaren Lan Osasuneko idazkariak. Sindikatuaren arabera, langileria aktiboaren %80-90 ingururi eragingo lioke neurriak.

Enpresaren interes produktiboen “mesedetan” jokatzea eragingo luke horrek LABen arabera, mutualitateek “irizpide produktibo eta ekonomizistak” baliatuko lituzketelako, eta, ondorioz, altak “lehenbailehen” eman, langileen osasuna “bigarren planoan utzita”.

Iriartek salatu duenez, proba pilotu bat ere egongo da eta akordioak ez du inolako kontrol publikorik aurreikusten. ●

100

urteko ibilbidea aldarrikatuko dute aurten Gasteizko gaztetxeak, Hala Bedi iratiak, Auzolana pilotalekuak eta Sumendi gunek. Okupazioan, autogestioan eta asanblearismoan oinarritutako borrokei "indarra emateko".

9.000

euroko isuna izatera hel daiteke legez kanpoko etxe turistikoaren jabea, Iruñeko Sanferminetan. Jaietan etxebizitza turistikoak bereziki ikuskatuko ditu Nafarroako Gobernuak.

3

urte eta 8 hilabeteko borrokaren ondoren, Euskal Herriko historiako greba luzeena amaitu dute Novaltiako langileek, kooperatibako zuzendaritzarekin akordioa lortuta. Kaleratzerik ez da izango eta kalte-ordaina jasoko dute langileek.

"Kalean bizi direnentzako La Sirena aterpetxea urte osoan irekita edukitzea eskatzen diogu Donostiako Udalari"

HERRITARREN HARRERA SAREA

Kanpaina eta sinadura bilketa dute martxan, Udalak aterpea neguan itxita izan duela salatu eta ireki dezala eskatzeko.

2023-03-28

"Zubietako erraustegiaren gardentasun ezak eta kudeaketa akatsek kezka sortu dute herritarren artean"

EZKER ANITZA

2023-03-30

"ENPRESARI HANDIEN MENPEKO HEZKUNTZAK MISERIARA KONDENATZEN GAITU"

IKASLE ABERTZALEAK

Greba eguna deitu zuten Hego Euskal Herriko ikasleen artean, hezkuntza enpresari handiek kontrolatzen dutela salatzeko.

2023-03-30



TEKNOLOGIA

Adimen artifizialen munduak



DIANA FRANCO

Zelan ikusten du adimen artifizial batek mundua? Zelan erakusten diogu ikusi behar dugula? Bi galdera horietan ziklo bat hauteman dezakegu, alde batean bitarteko hori den adimen artifiziala elikatzeko eskura dagoen informazioa, beste aldean informazio horrekin adimen artifizialak sortzen duena eta gure gizartean eragiten duena.

Aste honetan gai honen inguruan eztabaida bi aurkitu ditut sareetan. Bata TikTok sarean (egun AEBetan debekatzeko bidean daudena) adimen artifizialarekin aurpegiak moldatzeko dauden iragazki eraginkorrek garena makillatzeko aukera ematen dutelako (errealitatearen pertzepzioa guztiz eraldatzeko potentziala baitute), horrek izan ditzakeen onura eta kalteekin. Kalteen artean, arreta jartzen badiugu TikTok iragazkiei, hauteman ahal izango dugu bazterkeria arazoak sortu ditzaketela. Iragazkien emaitzak, adimen artifizial horrek sortuak, aurpegi edertuak direlako. Edertasunaren ideia oso homogeneousatzaile batera bideratzen ditu erabiltzaileak. Zein eragin izan dezake horrek gure gizartean?

Beste berri bat ere aurkitu dut: teknologia korporazio handien jabe eta ardura-dunek sinatu duten gutuna, non adimen artifiziala gizartearentzat mehatxua izan daitekeela zabaldu duten. Adimen artifizialaren garapenarekin aurrera egin aurretik hausnarketa egitea merezi duela diote.

Berri bi horiek ikusita, eta gure lan-lekuetan, denbora librean, ikastetxeetan ditugun datu estrakzio sistemetan bururaino sartuak gaudela ulertuta, uste dut adimen artifizial arrakastatsuenak izango direla gure gizatasunaren ahultasunak hobeto bideratuko dituzten munduak sortuko dituztenak. Baina kontraesana badirudi ere, gure ahultasun horiek beraiek izan daitezke adimen artifizialak gidatutako munduei aurre egiteko modua. Elkarrekin lan egiteko eta sortzeko moduak bilatu ditzakegu, elkarbizitza sustatu, mundu makillatu bat izateko dugun teknologiaren beharra txikituz eta adimen artifizialak sortzen dizkigun munduen beharra txikituz. ●

NAZIOARTEA



THE GUARDIAN

The Guardian-en mea culpa, esklabotzarekin izandako loturengatik

URKO APAOLAZA AVILA

The Guardian egunkariak 2020. urtean abiatutako ikerketa "independente" baten emaitzak plazaratu ditu. Horren arabera, egunkariaren sortzaileek, John Edward Taylor buru, esklaboak izan zituzten euren kotoi-sailetan XIX. mendean. 1821ean egunkariaren sorrera finantzatu zuten Manchesterreko enpresariak ere lotura izan zuten esklabotzarekin; gutxienez esklabista izandako hamaika babesle identifikatu dituzte.

Egunkaria argitaratzen duen Scott Trust enpresako presidente Jacob Sundek "barkamena" eskatu du, egunkariaren sortzaileek "kotoiaren merkataritzan izandako paperagatik", eta esan du barkamena eskatzea eta gertaera horiek onartzea "lehen pausoa baino ez" direla.

Sundek iragarri du *The Guardian*-en sortzaileen plantazioetan esklabo lanetan aritutako ondorengoen komunitateentzat 10 milioi libera (11,4 milioi euro) bideratuko dituela egunkariak, hango proiektuak bul-tzatzeke.

'Scott Trusten legatua esklabotzan' izeneko txostenean argi azaltzen da Taylorrek eta beste enpresariak ehungintza industriako sozietate sare handi bat zutela, eta Amerikako lurraldeetatik kotoia inportatzen zutela, Sea Islands, Hego Carolina, Georgia eta Jamaikatik, besteak beste.

ESKLABISTAK, KALTE-ORDAINAK ESKATZEN

Kasu batzuetan esklaboen jabeak ere izan ziren, George Philipsek esaterako, Jamaikan plantazio bat zuen eta Britainia Handiak esklabotza abolitu zuenean, 1835ean kalte-ordaina eskatu zion gobernuari, bere "jabetzakoak ziren gizakien galaragatik".

Erresuma Batua duela bi mendetik aritu izan da esklabo-jabe izandakoei kalte-ordainak pagatzen euren "ondasuna" kenteagatik; Bristolen 2015ean amaitu zuen Ogasunak zor hori ordaintzeari.

The Guardian-ek bere sortzaileen esklabo izandako zenbait pertsonaren izenak ere identifikatu ditu, Jamaikan 1831ko Gabonetako Esklaboen Iraultzan paper garrantzitsua jokatu zuen Granville izenekoa kasu.

"ROL PERIODISTIKO BERRIA"

Lehengoratzte Justiziarako Funttsak Jamaikan eta Gullah zein Geechen -libre geratutako esklaboek AEBetako kostaldean sorturiko hizkuntza eta kultura kreolearen lurraldeari deitzen zaie Gullah eta Geeche- programa bat zabalduko du datorren hamarkadan, hango proiektuak babesteko.

Horrez gain, egunkariak iragarri du komunitate beltzen inguruko erreportaje gehiago egingo dituela eta "rol periodistiko berriak" sortuko dituela arlo horretan. Kazetari beltzentzako bekak ere sortuko ditu *The Guardian*-ek. ●

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

*EITB Focus inkesta bi hilabeteren faltan
EAJ nagusi EAEko erakundeetan,
EH Bildu gora, Chivitek errepika dezake eta
Asiron alkatetzatik gertu Iruñean*


 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Datorren maiatzaren 28an egingo dira udal eta foru hauteskundeak Hego Euskal Herrian. EITB Media taldeak inkestak eskatu dizkie Gizaker eta GAD3 enpresei, eta haien datuak kaleratu dituzte. Nafarroako legebiltzarrean ez da espero aldaketa handirik –eskuina zatituta aurkeztuko da, baina boto kantitatean aldaketarik ez–, eta okerrik ezean, Chivitek ditu aukera gehien gobernuan jarraitzeko. Iruñean, berriz, aldaketarako gobernu osatu eta Asironek alkatetza berreskuratu dezakeela pentsatzea ez da disparatea. Eskuinak, zatituta aurkeztuta, botoak gal ditzake in-


kestaren arabera, eta oraingoan ere PSNren eskuetan egongo da ezkerrekoak edo eskuinekoak babestea.

Arabian eta Gasteizen, EAJ espero baino aiseago gailenduko da; Bizkaian eta Bilbon, batean esku-eskura du gehiengo absolutua eta bestean oso gertu; eta Donostian ere jeltzaleak nagusi. Nonbaiten lehia egongo bada, inkestaren arabera, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako izango da –halere, hiru eserlekuko alde du EAJk EH Bildurekiko–. Oro har, EAEn, EAJk eta EH Bilduk irabaziko dituzte botoak, eta gainontzeko guztiek galdu.


BILBO



GASTEIZ



DONOSTIA



IRUÑEA



■ 2019ko Udal Hauteskundeetako emaitzak
■ Udal Hauteskundeetako boto asmoa, 2023ko Maiatza

WALL STREET-EKO ERREGEAREN KONTSEILUEI SEGIKA DABILTZA GEROZ ETA GOBERNU GEHIAGO

Blackrock inbertsio-funtsak hitzarmena izenpetu zuen azaroan Ukrainako Gobernuarekin, eta gerrak suntsitutako herriaren berreraikuntza bideratuko dio, "sistema kapitalistan benetan sinesten dutenen kapital uholdeari esker". Hori lortu dezake Blackrockek, ezin irudikaturiko bere potentziari esker: 10.000.000.000.000 dolar aktibo ditu esku artean. Goazen ikustera zein den "Wall Street-eko errege" izendaturiko hori, ulertzeko nola lortu zuen gure bizietaraino sartzen.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ukraina faro bat bihurtu daiteke munduarentzat. Ez naiz filantropiaz ari, anitz izanen dira horrelakoak. Benetan diot Ukraina berreraiki nahi izanez gero, orduan bilakatu daiteke kapitalismoaren potentziaren faroa. Ondoko zehaztapena gehitzen dio baieztapenari: "Sistema kapitalistan benetan sinesten dutenek kapital uholdea eraginen dute Ukrainan". Gudu-zelaiari so egin eta miseria hori aberasteko bide ikusten duen gizon hori Larry Fink da, zehazkiago Blackrock inbertsio-funtsaren jabea. "Wall Streeteko erregea" ezizenez ezaguna da, eta finantza esparruan eragin gehien dutenen artean dugu 1.500 milioi dolarreko aberastasuna daukan hori. Blackrockek hitzarmena izenpetu zuen Ukrainako Gobernuarekin, herriaren berreraikuntza marrazteko kontseiluak -ez errateko manuak- bideratzeko

gerrak suntsitutakoari. "Hitzarmenak helburutzat du inbestitzaile publiko eta pribatuek berengain hartzea Ukrainaren berreraikitzea eta ekonomiaren sustertzea", Blackrockeko ordezkariaren arabera. Baina Ukrainako Ekonomia ministerioaren agirian ondokoa irakurri daiteke: "Nagusiki kapital pribatuetatik egingo da berreraikitzea". Baina nola heldu gara egoitza New Yorken duen enpresa pribatu batek estatu oso baten geroa marrazteko ahalmenara?

29 urterekin First Boston bankuaren zuzendaria zen, baina burtsan pario arriskutsuak harturik 100 milioi dolarreko zuloa eragin eta lekutu zen, beste lagun batzuekin Blackrock sortzeko 1988an. 1999an sartu zen burtsara enpresa hori -akzioa 14 dolarretan zuen, gaur egun 645 dolarretan denean-. Nola diren gauzak, bere garapen emankorre-na 2008ko krisian lortu zuen: bere go-

mendioak saldu zizkien finantza munduko eragileei, eta diru sarrera horrekin biderkatu zituen enpresen bereganatzeak. Alta, zoriaren ironia, Fink izan zen krisi horren oinarrian dugun subprime arrisku handiko mailegu hipotekadunen arbasoen asmatzaileetarikoa bat.

Ezezaguna izan arren uste baino eza-gunagoa dugu, eta urruneko finantza merkatuan egonda ere uste baino hurbilago dugu. Zergatik? Batetik, balitekeelako banketxean ezarritako dirua Blackrocki bideratu izana zure bankuak; eta bestetik, gure egunerokoan sartuak ditugun milaka eta milaka enpresen jabe delako. Hots, Ukrainan bezainbat Euskal Herrian dugu Blackrock.

Hamar bilioi dolar aktibo kudeatzen ditu -irudikatu Frantzia, Alemania eta Erresuma Batuaren Barne Produktu Gordinen batuketaren heina-, milaka partikular, profesional, banketxe, ase-



UKRAINAREN BERRERAIKITZEA

laz adostu zuten Larry Fink eta Volodimir Zelenskyk inbertsio-funtsaren eta gobernuaren arteko hitzarmena. Argazkian ageri dira biak, Fink pantailan dagoela.

UKRAINAKO GOBERNUA

guru edota pentsio-funtsen aktiboen zerbitzura. Kudeatzeak erran nahi du milaka bezero horien funtsak hainbat finantza-tresnatan inbertitzen dituela. Bezeroen %57 instituzioak dira, %33 bestelako inbertsio-funtsak eta %10 dira eragile pribatuak. Bezeroen %61 AEBetakoak dira, %31 Europakoak eta %8 Asiakoak.

Egindako etekinak bestelakoetan inbertitzen dabil eta gaur egun, enpresa handien kapitallean sarturik da: AEBetako bost enpresetatik batean da, eta munduko enpresa handienetan ere (Pfizer, Santander, Alibaba, Total Energie, Apple, Exxon Mobil, Chevron, Iberdrola, BBVA, Walmart, Adidas, Deutsche Bank eta beste). Hainbeste non eta munduko 14.000 enpresen erabakiak bozka bidez bideratzeko aukera duen. “Eraldaketa-rako boterea” dakar akzioen jabetzeak, Blackrocken webgunean irakurri dezakegunez, eta “akzio-demokraziaz”

Hamar bilioi dolar aktibo kudeatzen ditu Blackrock-ek –irudikatu Frantzia, Alemania eta Erresuma Batuen Barne Produktu Gordinen batuketa dela–

hitz egiten badute ere, hori bezainbat, akzio-diktaduraren gaitasuna ere ekar lezake...

“Blackrocken potentzia da trabagarria, ez dago gobernurik munduan ez ikusiarena egin dezakeenik. Larry Fink edo bere taldekoek pentsatuz gero he-

rri baten politika ez doala beraien inbertsioen alde, orduan herri horretako enpresetan dituzten akzioak salduko lituzkete. BlackRock hain da indartsua non eta burtsa bidezko zigorra berehala sentituko litzatekeen. Tamaina da beraz arazoa”, Sophie Fay kazetariaren hitzetan. Iritzi berekoa da *Blackrock: Eine heimliche Weltmacht greift nach unserem Geld* (“Blackrock: ezkutatutako indar bat zure dirua bereganatzen dabil”) liburuaren egile Heike Buchter kazetaria: “Blackrocken urrats oker bakar batek desoreka dezake finantza-mundua bere oinarrietaraino”.

PRIBATIZAZIOAREN ALDEKO KONTSEILARI SUTSUA

Banku, multinazional zein gobernu andana informatzeko eta kontseilatzeko zereginean ere dabil Larry Fink. Jakin izan dugunez, Ukrainarekin dauka beraz azken tratu potoloa.



“WALL STREET-EKO ERREGEA”

Ikaragarria da Blackrocken potentzia: Hamar bilioi dolar kapital kudeatzen ditu; milaka enpresen erabakietan parte hartzen du eta gainera, ehunka banku zentral, banku, gobernu ala multinazional aholkatzen dabil kapitalismoaren eta pribatizazioaren defendatzaile sutsua.

SIPA

2008 biharamunetan Blackrocki aholkua galdetu behar izan zioten demagun Irlandako eta Greziako banku zentral edota gobernuek, horretara beharturik Troiakak –Europar Batasunak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak–. 2020an Europako Batzordeak zuen hitzarmena izenpetu trantsizioari buruz hartu beharreko norabideak marrazteko... Eta horrelako esku hartzeak ehundaka mundu guzian barna.

Blackrockek zerbitzu publikorik ez du nahi, trukatzeko den oro izan daitekeelako diru iturri, eta austeritatea, pribatizazioa eta ultra-liberalismoa juntatzen dituen antolaketa aholkatzen dabil. Parekoak aholkuari bizkarra erakutsi diezaiokeela? Bai, bistan da, baina aholkulariaren boterea ikusirik agian ez da hain sinple? Are gehiago krisi politiko edo ekonomiko gogor batean murgilduta zaudenean. “Kapitalismoaren Troiako zaldia” dela diote antikapitalistek. Troikaren gisara, funtsean.

Badugu Blackrocken berri Ipar Euskal Herriko. Hain zuzen, ezaguna zaigu, bera egon baitzen 2019an Emmanuel Macronen gobernua erretretan erreformari buruz aholkatzen. Kapitalizazioa aholkatu zion. Berez ez da

“Blackrocken urrats oker bakar batek desoreka dezake finantza mundu osoa eta hori bere oinarrietaraino”

Heike Buchter

pentsio-funts bat Blackrock, baina pensio-funts andanaren dirua maneiatzen dabil, hots, bere interesen alde doa kapitalizazioa. Esku artean dauzkan kapitalen bi herenak pensio-funtsen eskutik ditu! “Amerikar funts horren eta Frantziako erretreta sistemaren arteko lotura ez da berehala ageri. Alta, erreforma horrek bezero berriak ekarriko dizkio: zehazki, kotizatu beharreko urte kopurua emendatzen bada, orduan, oraingo kotizazio-heinari dagokion erretreta ttipitzen da. Klase

altukoei inbertsio-funts pribatueta kokatzeko gogo emanen die horrek, eta hori badaki Blackrockek”, irakurri daiteke Mrmondialisation.org komunikabideko *Lumière sur BlackRock, ces financiers qui possèdent le monde* (“Blackrock argira, munduaren jabe diren finantzari horiek”) artikuluan.

GAINERA, ADIMEN ARTIFIZIALA ESKU ARTEAN

Blackrocken gaineko kontrolik ez da, eta horrek du monopolioa are arriskutsuagoa bihurtzen. Ondokoa irakurri daiteke *Mediapart*-ek zabalduriko *Blackrock ou les risques insensés de la finance spéculative* (“Blackrock edo finantza espekulatzailearen arrisku pentsaezinak”) artikuluan: “Autoritateen inolako kontrolik ez duen finantza-mamu hori oso arriskutsua da”. Kontrol-eza aski ez balitz bezala, are beldurgarriagoa da jakitea adimen artifizialak dizkiola datuak aztertzen eta bideratzen.

Aladdin (Asset, Liability, Debt and Derivative Investment Network, hau da “aktibo, pasibo, zor eta deribatuetako inbertsioen sarea”) izeneko adimen artifiziala sortu zuten zerbitzari informatikoetatik pasatzen diren zama



FRANTZIAKO ERRETRETEN ERREFORMAN ERE BAI

2019koa da argazkia, Emmanuel Macron presidenteak Larry Fink Eliseoko jauregian errezebitu zueneko. Erretreren erreformari buruzko gomendioak pasa zizkion, tartean, kapitalizazioari ateak irekitzeko estrategiei buruzkoak.

guziak aztertze. “Kalkulu-tresna hori esku artean, Blackrockek uste du milaka milioi datu finantzario milaka milioi dolar bihur ditzakeen harri filosofala aurkitu duela”, irakurri daiteke “Blackrock edo finantza espekulatzai- learen arrisku pentsaezinak” artikuluan. Segundu bakarrean milaka akzio, obligazio, dibisa edota kreditu-titulu konparatzen ditu, testuinguru ekonomikoko zifrak ere integratuz (enpresen salmentak, petrolioaren prezioa, monetaren balioa, eta beste). “Inbertsioaren arrisku guziak analizatzeko gai da, argitzen ditu non saldu behar

**Finantza fase berri batera
sarrarazi du Aladdin
adimen artifizialak:
analisirako plataforma
informatikoez ordezkatu
dituzte finantza analistak**

diren obligazioak, transakzio guziak jarraitzen ditu eta ezinbesteko dituen informazioak atzemanen dizkio inbertitzaileari”, *Le Financial Times*-ek laburbiltzen duenez.

Finantza mundua fase berri batera sarrazi du Aladdinek: “Analisirako plataforma informatikoez ordezkatu dituzte finantza analistak”. 2008ko finantza merkatuen krisiaren errepikapenaren mehatxua gero eta errealagoa dugun honetan beldurra hezurretaraino sartzen digu jakiteak kontrolik gabe eta adimen artifizialetik doala aitzina finantza-merkatua. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Irene Vallejo

ANTZINAROTIK ORAINAZ

“

MITOAK GRAMATIKA UNIBERTSAL BATEN ANTZEKOAK DIRA

”

Haurra zela liluratu zuen greziar mitologiak Irene Vallejo idazlea, eta txundidura horren suak barruan irauten dio oraindik. *Infinitua ihi batean* lanari esker ezagutu genuen askok, baina Vallejo aspalditik ari da Antzinaroaren argiak eta ilunak zabaltzen, eta ordukoak gaurkoarekin lotzen. Dirudiena baino gertuago daukagu iragana: sinesten eta kontatzen ditugun narrazioen tolesetan daramagu.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Gogoan al duzu zein izan zenuen Antzinaroarekiko lehen harremana?

Beti esaten dut gauza bera: aitak egin ninduen filologo klasiko. Ziur aski, nahi gabe; jakin izan balu, zuzenbidearekiko edo medikuntzarekiko maitasuna helarazten saiatu izango zen. Baina tira, txikia nintzela, gauero ipuin bat kontatzen zidaten garaian, *Odisea* kontatzen hasi zitzaidan behin batean.

Nolatan hori?

Egia esan, telebistatik etorri zen dena. Ulisesi buruzko marrazki bizidun batzuk ematen zituzten, espazioan kokatuak.

Orduan aitak esan zidan: hori ez da benetako Ulises, eta *Odisea* kontatzen hasi zitzaidan: bidaia, ziklopeen istorioa, Kalipso... Hiru urte-edo izango nituen, eta liluratuta geratu nintzen. Ez nekien klasiko bat zenik, ez nekien nor zen Home- ro, eta ez zitzaidan axola klasikoan garrantzia kulturala. Besterik gabe, istorio txundigarria iruditu zitzaidan. Egia esan, luzaroan pentsatu izan nuen *Odisea*-ren autorearen gure aita zela.

Hara!

Ahoz kontatzen zidan, eskuan liburu- rik ez zuela, bere hitzekin, gauero ipuin

edo pasadizo bat... Berak asmatua zela pentsatzen nuen. Klasikoekiko lotura ahoz-kotasunaren bidez etorri zitzaidan, elkarri istorioak kontatzearen tradizio milaka urteko horrekin.

Eta orain, helduaren ikuspegitik, zure ustez zer dauka *Odisea*-k, hainbeste jende sorgintzeko?

Egia esan, ez dut uste haurraren ikus- pegitik begiratzeari utzi diodanik inoiz. Ume horren begiek bizirik iraun dute ikasketa akademikoaren eremu lehorra- ren ostean ere, eta txikitako ipuin ho- rren emozioa sentitzen dut oraindik.



Irene Vallejo

ZARAGOZA, 1979



Filologia klasikoa ikasi zuen, eta arlo horretan doktoretza-tesia egina du. Halabeharrez ibilbide akademikoa utzita, Greziako eta Erromako zibilizazioei buruzko dibulgazioan dihardu, *Heraldo de Aragón* eta *El País* egunkarietan, besteak beste. Gainera, hainbat liburu idatzi ditu, saiake-
rak zein eleberriak. Euskaraz, *Infini-
tua ihi batean* (Pamiela, 2021) irakur
diezaiokegu. 2019an kaleratu zuen
liburuen asmakuntzari buruzko lan
hori, eta, harrezkero, saria sariaren
gainen pilatu du, eta irakurle mor-
doxka bat erakarri.

Baina, zure galderari erantzunez, niri Odisea zehazki asko gustatzen zait, iruditzen zaidalako oso ondo harrapa-
tzen duela giza izaera. Ulisesek etxera itzuli nahi du, etxekoen falta sentitzen du, eta hori denok ulertzen dugu ondo, baina, aldi berean, abentura-gose da. Orduan, etxera bidean doala, entrete-
nitu egiten da. Eta uste dut pertsonak halakoak garena: segurtasuna behar dugu, baina abenturak ere irrikatzen ditugu. Ithaka nahi dugu, baina baita Troia ere.

Filologia klasikoa ikasi ostean, ez zenuen bide akademikotik segi. Zer dela eta?

Egia esan, bide akademikotik jarraitu nahi nuen. Nire familian funtzionario asko dago, eta nahiz eta beti hauspotu duten nire alderdi sortzailea, orobat esan didate zentzuzkoa izateko eta lan finko bat aurkitzeko; gero, nahi baldin banuen, aisialdian idatz nezakeen. Nire amarentzat batez ere obsesio bat zen nik oposizio bat egitea, eta ulertzen dut, zeren hark bazekien nolako oztopoak izaten ditugun emakumeok mundu honetan, eta horregatik esaten zidan zerbait segurua lortzeko, inork kendu ezin zidan zerbait, eta gero gero-
koak. Horrenbestez, nire asmoa zen unibertsitatean sartzea, lan seguru hori edukitzeko eta ama lasaitzeko, eta gero, hortik aparte idaztea.

Baina?

Baina, doktoretza amaitu nuenean, berez, doktoretza-osteko beka bat eskatu behar izango nukeen, eta hori atzerrian egin behar da derrigorrez. Garai hartan aita minbiziarekin gaitxotu zen, eta hura zaintzen geratzea erabaki nuen; gurasoak bananduta zeuden, eta ni nintzen aita Zaragozan zeukan senide bakarra. Diagnostikoa eman ziotenean, urtebete bakarrik geratzen zitzaiola esan ziguten, eta geratzea erabaki nuen. Azkenean hiru urte izan ziren, eta berriro bizitza akademikora itzuli nahi izan nuenean, jada ez nintzen lehiakorra, hutsune bat zegoen: hiru urte argitalpenik gabe, kongresurik gabe...

Zaintza-lanak zigortu egiten dira.

Garai hartan ez zegoen ezer pentsa-
tuta halako kasuetarako, norbaitek etenaldi bat egin nahi balu haur bat izateko edo gertukoak zaintzeko adi-
bidez, eta uste dut halako egoerak ain-

tzat hartu behar liratekeela; ibilbide akademikoa exigentea da, baina ba-
tzuetan geratzeko beharra dago, eta agian urte horiek ez lirateke kontuan hartu behar. Azken bost urteei erre-
paratzen zaie, ordea, eta hiru urteko hutsunea nuenez, trena galdu nuen, nolabait esatearren.

Kazetaritzaren munduan sartu zinen. Zer dela eta?

Hutsetik hasi behar nuen berriro, eta beste zerbait egin Filologia Klasikoko ikasketekin, mundu guztiaren arabe-
ra ezertarako balio ez duten ikaske-
ta horiekin. Hala bururatu zitzaidan kazetaritzarena. *Heraldo de Aragón* egunkarira jo nuen; Aragoiko toki-
ko egunkaria da. Garaian, Guillermo Fatás zegoen zuzendari, fakultatean Antzinako historiako irakasle izanda-
koa. Zutabeak idazten hasiko nintze-
la proposatu nion: gaurko gaiez hitz egingo nuen, baina mitoren batekin, Antzinakoarekin edo etimologiarekin lotuz. Albisteak edo gai handiak beste ikuspegi batetik lantzeko. Ideia gusta-
tu zitzaion, eta probatzeko esan zidan. Hala hasi nintzen, ziurtasunik gabe, baina nire begirada eskaintzeko go-
gotsu.

Zer eman dezake ikuspegi horrek? Batzuetan iruditzen zait, iraganari begiratzen zaionean, arriskutsua izan daitekeela akatsetatik ikastearen edo akatsak ez errepikatzearen diskurtso hori, berez asmo ona izan badaiteke ere, hutsa ere izan daitekeelako.

Bai, noski, hori baino askoz konple-
xuagoa da. Hala eta guztiz ere, ikus-
pegi interesgarria iruditzen zait. Gai-
nera, unibertsitate publikoan ikasi eta ikertu dugunok, uste dut badugula ardura ikasitakoa eztabaida publikora ekartzeko, gertakariak ikuspegi apur bat konplexuago eta ez hain sinplifika-
tzaileetatik azter daitezen. Ez da gau-
za mekaniko bat, noski, ez da "akats hau egin dugu, eta ez da errepikatu-
ko". Baina, azken batean, demokra-
zia komunikazio-modalitate bat da, eta filosofiak, historiak, filologiak eta humanitateek, nahiz eta konponbide magikorik ez eskaini, debateari lagun-
du ahal diote, ez dadin hain lakarra izan, apur bat zainduagoa izan dadin, eta ez beti talkatik. Halaber, iragane-
ko falazia eta engainu eta manipulazio batzuk desmuntatzeko balio dezake,



izan ere, argudio politikoak, batzuetan, halakoen gainean eraikitzen baitira.

Egia esan, nik ez dut askorik irakurri Antzinaroari buruz, urrun geratzen zaidala iruditu izan zait beti. Baina bazarete bitartekari batzuk (zu zeu, Anne Carson, Mary Beard...), eta zuek garai haien inguruan idatzi duzuenak bai piztu dit interesa. Deigarria da, emakumeak gara denak.

Bai, horixe ere galdetu nahi nizun, ea zuk loturarik ikusten duzun horretan.

Lehenik bitartekaritzaren edo dibulgazioaren galderari erantzungo diot. Uste dut zeregin hori —erraztea, laguntzea— oso garrantzitsua dela unibertsitatean. Gaur egun, dibulgatzaile hartzen bazaituzte, bigarren mailako ikertzailea zarela uste da, ez zara ikertzaile originala, iturri zuzenekin eta hitz teknikoekin dabilena. Dibulgazioa, beraz, gutxietsi egiten da. Baina oso inportantea da. Guk

ikertu dugun hori guztia erabilgarria da gaur egungo gizartearentzat, zerikusia baitu zure bizitzarekin, baita latina edo greziera inoiz ikasi ez badituzu ere: zerikusia du zure kezkekin, zure egunerokoarekin, zure pasioekin, nork bere buruari egiten dizkion galdera eternoekin. Funtsean, horri buruz ari gara, eta hori zuri axola zaizu eta mundu guztiari axola zaio.

Eta, lehen aipatu dugun horretara itzulita, zer iruditzen zaizu hainbeste emakume aritzea gaur egun Antzinaroari buruzko zabalkundean?

Deigarria iruditzen zait, bai, eta maiz pentsatzen dut kontraesan horretan. Antzinako munda latinoa sakonki misinginoa zen. Zu eta biok garaiko Grezian

edo Erroman jaio izan bagina, ezingo ginatke idazleak izan, ezingo ginatke etorri hona hitzaldiak ematera, ni gaur etorri naizen moduan. Hitzaren zirkuitutik kanpo egongo ginatke; hitza gizonen kontua zen, eta hori oso argi azaltzen da Antzinarako testu askotan.

“

Demokrazia komunikazio-modalitate bat da, eta filosofiak, historiak, filologiak eta humanitateek, nahiz eta konponbide magikorik ez eskaini, debateari lagundu ahal diote”

Beraz?

Beraz? Zer iraultza klase gertatu da gehienbat emakumeok izan gaitezen mito horietara jotzen dugunak? Beharbada, hori guztia begirada kritikoago batetik lantzeko gai garelako izango da; ez dugu idealizatzen, eta ez ditugu greziarrak eredu gisa aurkezten, XIX. mendeko ikertzaileen kontrara. Guk, izan ere, greziarren eta erromatarren argi-ilunak ikusten ditugu, haien arazoak, gatazka, tentsioak... Joskurak non lehertzen di-

ren ikusten dugu. Mito horiek ber-
rurakurtzen ditugu, eta beste modu
batera interpretatzen. Esate bate-
rako, Troiako Helenari buruz beti
esan izan da emakume guztiz eder
hura zela, baina, egiaz, behin baino
gehiagotan bahitu eta behartuta-
ko emakumea izan zen; salgai bat
balitz bezala tratatu zuten, gerrako
garaikur gisa.

Anne Carstonek, hain zuzen ere, badu antzezlan bat *Norma Jean Baker of Troy* izenekoa (Norma Jean Baker Troiakoa): Helenaren historiari heltzen dio, baina haren lekuan Marilyn Monroe jarrita. Oso interesgarria iruditzen zait uztarketa hori.

Bai, gainera deigarria da zenbat aldiz azaldu izan diren historiako gerrak errua emakume bati egotzita. Emakumeen kulpabilizazioaren kate hori ikusten dugu (Eba, Pandora, Helena...), eta argi geratzen da mito horiek bizi-bizirik daudela oraindik gure gizartean. Hala, interesgarria da mitoetara itzultzea, munduari buruzko interpretazio trinko-trinkoak diren aldetik. Ideia bat islatzen dute, kontzeptu bat, eta mitoari helduta



ideia horren kontra egin dezakezu, edo buelta eman, gaur egungoarekin lotu... Inés Ramón poeta argentinarrekin, horixe egin genuen *La mañana descalza* (Goiza ortozik) izeneko liburuan: mito femeninoak bilatu, eta orainarekin lotu.

Esate baterako?

Adibidez, hor dago Kasandra. Iragarpenak egiten zituen etorkizunari buruz, baina ez zituen sinesten. Emakumeen lekukotasunak ez sinestea, haien ekarpenei baliorik ez ematea, hori ere gaur-gaurko kontua da, ezta? Eta gero badago beste antzezlan bat, *Troiarrak*, Euripidesena, emakumeek gerran ordaintzen duten prezioari buruzkoa. Eta *Erregutzai-leak* tragedia, Eskilorena, non emakume batzuk Greziara iristen baitira, beren senarren indarkeriari ihes egiteko. Eta hor lantzen da indarkeria matxista, erbestea, migrazioa...

Mitoak gramatika unibertsal baten antzekoak dira, hori dute ona; oso erabilgarri gerta daitezke gure tradizioei, eraiki gaituzten kontakizunei eta gure zibilizazioaren zutarrak ankerrei buruz hitz egiteko. Hortik begirada eta kritika oso interesgarriak egin daitezkeela iruditzen zait, bizi garen mundua birpentsatzeko.

Gaur arratsaldean [otsailak 23] hitzaldi bat eskainiko duzu hemen,

Iruñean, Fernando Reyrekin batera —berak euskaratu du *Infinítua ihi batean*—. Itzulpengintzaren inguruan jardungo zarete.

Uste dut gure gizartean ez dugula nahikoa baloratzen itzulpenaren ofizioa. Nire editore guztiei eskatu izan diet itzultzailearen izena azalean ager dadila, eta gaur egun sinestezina iruditzen zait argitaletxe guztiek gauza bera ez egitea. Itzulpena oso zeregin konplexua da, esanahia ez ezik testuaren erritmoa edo musika ere islatu behar delako.

Zer ekarpen egiten digute itzulpenek, zure ustez?

Irakurlearentzat, bere mugetatik askatzeko tresna bat da itzulpena; ulertzen ditugun hizkuntzetako lanak bakarrik irakurri ahal bagenitu... Pentsa dezagun gure bizitzako liburu garrantzitsuetan: itzulpenik izan ezean, irakurri izango genituzkeen inoiz? Ziur aski, ez, beraz, itzulpenik gabe, mundua leku pobregoa eta probintzianoagoa izango litzateke.

Infinítua ihi batean Espainiako Estatuko hizkuntza guztietara itzultzea nahi izan duzu, ezta?

Bai, niretzat amets bat zen hori lortzea, eta agenteari eskatu nion horretan saiatzeko. Aurrena katalanera itzuli zen, ondoren galizierara, eta gero, euskarara. Horren ostean aragoiera ere etorri da.

Aragoieraren kasuan, apustu argi bat zegoen hor atzean, ezta?

Bai, duintasuna eman nahi genion. Tradizionala, landa-eremuarekin lotu izan da aragoiera, eta aragoiera-hiztunak ezjakintzat jo izan dira, eta gauza guztiz bidegabekia eta mingarria da hori. Beraz, aldarrikapen bat egin nahi genuen, bidegabekeria hori jasan dutenengan pentsatuz. *Infinítua ihi batean* liburuan filosofia, historia, pentsamendua eta abarrak lantzen direnez, erakutsi nahi genuen aragoieraz ere adieraz daitezkeela gauza horiek denak; gainera, Aragoiko koroaren garaian, Plutarkoren klasikoak adibidez, aragoierara itzuli ziren, hortaz, aragoieraz halakorik egin ezin daitezkeela aurreiritzi hutsa da. Uste dut hizkuntza txikien eta baztertuen alde egin behar dela argi eta garbi. Hizkuntzak aberastasuna dira, pentsamenduaren arkitekturak, eta ahalegin bat egin behar dugu, gal ez daitezen. ●



Gerra ez da bakea



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Ukrainako errusiar inbasioaren urteurrenean berriro ikusi ahal izan dugu Mendebaldeko hedabideak errusiarrak bezain beste daudela militarizatuta: gustuko ez zituzten datuak lurrundu edo manipulatu dituzte, ukrainar faxismoa normalizatzen jarraitu dute eta, noski, bando okerreko biktimen mina eta sufrimendua ikusez inbihurtu dute.

Bitartean Pablo Gonzálezek preso jarraitzen du Polonian, kazetarien kontrako zeharkako mehatxu gisa, nahiz eta egun ohikoena den disidentzia narratiiboak heriotza sozialarekin isilaraztea. Horregatik, autozentsura mekanismoak indartu egin dira zuzeneko zentsura finkatzearekin batera, Josep Borrellen esanetan, "hori eginda (hedabideak zentsuratzea), ez diogu eraso egiten adierazpen askatasunari, babestu baizik". Ongi etorri George Orwellen 1984 eleberrira: gerra bakea da, askatasuna esklabotza da eta ezjakintasuna indarra da.

Europako Batasunak (EB), lehen aldiz historian, erasopean dagoen herrialde bati, Ukrainari, armak eta ekipamendu militarra erosteko milaka milioi euro eman dizkio; besteak beste, dirua Bakea Babesteko Europako Funtsetik atera da. Gerra bakea da eta ideia hori saltzeko Egiaren Ministerioa lanean dago.

Hedabideek etengabe errepikatzen duten mezua da gatazka gudu-zelaian erabakiko dela, eta, gainera, horixe bera nahi dutela ukrainarrek, beraz, bakearen izenean arma gehiago, heriotza eta

Logika aristotelikoa da:
gerra batean ahulena
armatzen baduzu
gerra gehiago luzatzea
lortzen duzu, ez
lehenago amaitzea

suntsipen gehiago eskatzen dute. Zergatik ez zituzten eskatzen armak Jugoslaviarentzat, Irakentzat, Libiarentzat edo Palestinarentzat?

Josep Baqués-ek, Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak eta Ikasketa Estrategikoen Espainiako Institutuaren (IEEE) eta Lurreko Armadaren Trebakuntza eta Doktrinaren Agintearen (MADOC) kolaboratzaileak azaldu berri du UNEDen:

"Hemen filma zera da: 'Ukraina armatu dezagun gerra lehenago amaitu dadin'. Ez dago militarra izan beharrik, Batxilergoko hirugarren maila egin izana bakarrik: logika aristotelikoa, gerra batean ahulena armatzen baduzu gerra gehiago luzatzea lortzen duzu, ez lehenago amaitzea(...)Taktika da: 'Errusia zigortuko dugu, baina Ukraina erabilita'".

Planteamendu hori bi modutara amaitu daiteke: ohikoena litzateke AE-

Bek unerren batean Kieven interesak zaboretara botatzea, edo, ez dena ohikoa, gatazka goratzen jarraitzea, esploratu gabeko agertokietara eraman gaitzakeena, adibidez, gerra nuklearrera. Baqués irakasleak horrela azaltzen du:


"Krimeako penintsularen subiranotasuna salbatzeko hirugarren mundu gerrara arriskatzen banaiz, agian immorala da karta horiek jokatzeko(...) Krimeako ukrainar subiranotasuna gordetzeko gerra nuklearrera jotzea, ez dut uste horretan ados dauden moralista profesional asko dagoenik, ez da proportzionala".

Gerra ez da zertan gudu-zelaian erabaki. Bake agertoki bat eraikitzeke negoziazioa eta su-etena behar ditugu. Irtenbideak daudela aurreikustea posible da: ukrainarren arteko gatazka konpontzeak bideragarria izan beharko luke deszentralizazio edota federalizazio prozesuak bultzatuta, hain zaila da probintzietako buruak presidentek izendatu beharrean herritarrek bozkatzeko? Hain zaila da errusiar armadak etxerako buelta egitea ukrainarren neutraltasunaren truke, eta NATOk bere garaian emaniko hitza bete eta 1997ko mugetara bueltatzea? Ekialdeko herrialdeak, Ukraina barne, EBko kideak izan litezke NATOk kide izan gabe, eta ez litzateke ezer gertatuko. Adibide batzuk baino ez dira, ulertzeko nahi bada gerra amaitu daitekeela, arazoa da batzuk ez dutela amaitu nahi, beraiek ez dituztelako ondorioak pairatzen. ●

Jarrai ibiltzen



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Ibiltzeak mila bertute dauzka. Juan Luis Zabalak hori zioen berriki: "Ibilian ziren / nire kezkek aienatu. // Ibilian ninduen / atsedanak hartu. // Ibilian zitzaidan / bizitza indartu" (*Mina hartzeko ere*, Susa, 2022). Duela 250 bat urte, Rousseauk goraipatu zituen kurri aritzeak eragiten dituen onurak, laguntzen duelako hausnartzen, irudikatzen, asmatzen, obrak sortzen (*Les Rêveries du promeneur solitaire*, 1776-1778). Mende bat geroago, erromantikoek teorizatu zuten ibiltze ekintza (ikus Balzacen *Théorie de la démarche*, 1833), eta hori laudatu beren fikzio edo olerkietan (Victor Hugok, bereziki). Izendatzen ditudan idazle frantses horiek guziek konnotazio baimonkorra eman zioten *marche* hitzari.

Ildo horretatik, aro garaikidean biderkatu dira ibiltzea gorensten duten lan filosofiko, psikologiko edo literarioak, esparru frantsesean. David Lebreton soziologoak, adibidez, argitaratu du *Éloge de la marche* liburua 2000. urtean, *Marcher. Éloge des chemins et de la lentueur*, 2012an eta *Un art tranquille du bonheur*, 2020an (Métailié). Esplikatzeko du lasterka aritzea gure bizimolde garai-kidearen oinarria dela: tarrapatu hartu behar ditugu erabakiak, eta etengabe-

ko korrikak irensten digu pausatzeko, goxatzeko eta gogoetatzeko genukeen denbora. Berehalakotasun larrian gabiltza, memoria galduta, gertakari fluxu zoroak eramane, jakin gabe nola iraun, kaotik zer salba, ondorengoei zer utzi. Zeingehiagoka horretan, azken finean, bizitza bera zaigu eskapatzen, zalu-zalu. Bizkitartean, ibiltzea erresistentzia sartzea da, dio Lebretonek, barne- eta kanpo-bakea, zuhurtzia eta bizipoza pizten dituelako, eta, hondarrean, bizitzari zentzu emateko parada eskaintzen duelako.

Gisa berean, Martine Segalen (*Les Enfants d'Achille et de Nike*, Métailié, 1994), Frédéric Gros (*Marcher, une philosophie*, Carnets du Nord, 2008), Sarah Marquis (*Sauvage par nature*, Pocket, 2015), Antoine de Baecque (*Une histoire de la marche*, Perrin, 2016), Sylvain Tesson (*Sur les chemins noirs*, Gallimard, 2016) eta hainbat intelektual interesatu dira ibiltzearen onbideei buruz.

Ez dira, haatik, solas horien heinekoak Emmanuel Macronen azken hitzak: berak jende xehearendako ontzat dauzkan lege berriak inposatuko ditu, kosta ahala kosta, "*à marche forcée*", erran nahi baitu, bortxazko urratsean. Hiztegi militarretik dator adierazpide

hori: bat doa frantses lehendakariaren alderdi politikoaren lehenagoko "En marche!" izenarekin, hau da gatazka armatu egoeran erabiltzen den esamoldea. Bat doa orokorrean bere buzuaz ematen duen itxura gerlatiarekin (berdin zaio ideia, birusa ala herritarra duen etsaia).

Hiztegi horren haritik datoz ekimen konkretuak, konparazioak, Iparraldeko kolegioei hilabete honetan proposatu izan zaien "Hiritar rally" delakoa, hau da, ikasleendako ibilaldi lasterra armada frantseseko kide batzuekin, gazteek frogatzen dezaten martxa militarra Baionan zehar.

"Renaissance" (Errenazimendua) izena eman zion bere talde politikoari Macronek, hauteskunde garaian, modu higuinarriz bereganatuz hitz horren inplizitu humanista. "Marche" izena, berdintsu, bereganatzen du, maniobra militarrek konbokatuz hartzailearen irudimenean, hitza erresistentzia indarretatik erauzi nahi balu bezala. Manifestariak, berriz, ez dute beren martxa gelditu, beren haserrea oihukatzen.

"Ibili-ibili eginda, / ibilia nuen / aberri bihurtu", du idazten Zabalak: bakezko aberriari jarraiki diezaiozun urratsez eta elez! ●

Zenbat gara (Eus)²p?



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Euskaldun Euskaltzale Praktikan-teok, (Eus)²p-ok, azken inkesta soziolinguistikoaren gaineko datuak aztertzen ari gara orain: Zer moduz Nafarroan? Zer moduz EAEn? Zer moduz hiriguneetan? Zer moduz zonalde ez oso euskaldunetan? Zer moduz arnaguneetan? Zer moduz... gaude, laztana?

Argi-ilunen balorazioan badirudi argiantza dela nagusi aldeketasun-ezagutza-erabilera eta abarretan. Nor naiz ni kopetilun jartzeko? Egin dezagun irri, hauteskunde-osteetan alderdi gehienek egiten duten antzera. Izan ere, ez al dira inkesta-ostekoak hauteskunde ostekoen antzekoak, non, galtzaile disimulaezinen bat gorabehera, denak diren garaile (botorik ematen ez dutenak salbu)?

Izugarria da (Eus)²p-ok (arlotu guztietan, ahozkoan, idatzizkoan, kultur kontsumoan, lanean eta abarretan euskaraz bizi nahiko genukeenok –garrantzitsua deritzot guretzako akronimo apurtzaile bat izateari–), euskararen egoera, erabilera, osasuna eta abarren gainean jarduteko daukagun ahalmen, gogo eta pazientzia mugagabea.

(Eus)²p-ok giza-azpitalde nekaezina gara (populazio osoaren %10-edo garestia aintzat harturik), baina iruditzen zait euskararen normalizazioaren inguruko zurrumbiloan jira-biraka gabiltzala, inkestarik inkesta, gurpil zoro biziari ba-

tean. Eta aski da: ezinezkoa da baldintza hauetan normalizazioa, eta ez gara harantz hurbiltzen ari.

Demagun euskararen normalizazio gutxieneko bat (N): Euskal Herri osoko pertsona guztiek euskara ezagutzea (Eus) eta (Eus) horren erdia (Eus)²p-ok izatea.

$$N = \text{Eus} + (\text{Eus})^2p$$

$$\text{Eus}/2 = (\text{Eus})^2p$$

Teorian, euskararen normalizaziorako baldintza onenak dituen lurralde puskan, EAEn, ezinezkoa da N-ra iristea, baldin eta egunkari bat bakarra euskaraz bada, ETB1ek ETB2k baino aurrekontu askoz txikiagoa badu (eta erdal telebista zein plataformez inguraturik), ume guztiek euskara murgiltze eredu unibertsal publiko bat eskura ez badute edota helduen euskalduntzea gaztelania ikastea bezain doakoa ez bada (eta zerrenda luze bat infiniturantz jotzen duena).

(Eus)²p-ok kapitalismoak eragindako gainerako estresez gain (lana, sexua/maitasuna, kontzientzia...) estres linguistikoaz ere bizi garen gizaki auto-suntsitzaileak gara.

Ez dut asko pentsatu, baina, agian, soluzio bat da Belgika baterantz edo batzuetarantz jotzea? Alegia, (Eus)²p-ok, (zenbat ginateke, 200.000?), herri linguistiko bat aldarrikatzea, zerbitzu eta alor guztiak euskara hutsean izango genituzkeenak. (Agian gutxiago ginateke?). ●

Lanartea



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Ez dut gogoan nori entzun nion hilaren amaierara poesia idazten baino ezin dela iritsi, baldin eta poesia ez bada hilabete amaierara iristeko zure modua. Poesia, zorionez edo zoritxarrez, sistema literarioaren eta industria kulturalaren periferian egon da beti. Nolanahi ere, poetok badugu nolabaiteko prestigioa. Gutxi saltzen dugu baina ongi ikusita gaude. Ni, behintzat, talde horretan nago. Egunotan bi liburu aurkeztzen ari naiz han eta hemen: bata, euskaraz eta, bestea, katalanerako itzulpena. El-karrizketa guztiei baietz esaten diet eta saiatzen naiz moldatzen kazetarien egutegi eta ordutegietara. Nire lanak uzten

dit opor orduak eta egunak askatasun handiz hartu ahal izatea eta kanpora joan ahal izan naizenean ez dut arazorik izan eskatu didatenean hegaldi eta hoteletako dirua aurreratzeko. Esan gabe doa: dirua galtzen dut nik literaturarekin. Eta esan diezadakete: gustuko duzuna egiten ari zara. Baina kezkatzen nau nik onartzen ditudan enkargu batzuk —debalde edo gaizki ordainduta— ez ote dieten kalte egiten literaturaz —edo, hobeki esan, idazteaz—bizi direnei. Horregatik egin naiz Lanarteako bazkide. Sortzen dugunok, eta zer esanik ez profesionalek, duintasunez egiteko eskubidea dugulako. ●

Botoa eta hizkuntzak



ROBER GUTIÉRREZ
BAI EUSKARARI
ELKARTEKO ZUZENDARIA

Hauteskunde kanpainaren atarian gaude... Edo, hobeto esanda, eten-gabeko hauteskunde kanpaina batean murgilduta bizi gara. Ezagutzen hasi gara maiatzean udal eta foru hauteskundeetara aurkeztuko diren hautagaien zerrendak eta gure ongizatean eragingo duten proposamenak, nahiz eta, itxuraz, kanpainak ez duten gehiegi eragiten boto-asmoetan edo, behintzat, ia inork ez duen uste eragiten diotenik.

Gertuko politikak izango dituzte hizpide eta horregatik, hain zuzen ere, datozen urteotan garatu asmo dituzten programa eta ekimenak aurkeztzen ari zaizkigu. Horien artean, euskarak berebiziko protagonismoa izatea nahiko nuke, politika eta programa guztietan eragiten baitu, zuzenean edo zeharka. Susmoa dut, hala ere, egoera bestelakoa izango dela.

Hautagaiak, zenbait kasutan, ezagunak dira; beste batzuetan, alderdiek eta koalizioek orain arte zeregin horietan aritu ez diren pertsonak hautatu dituzte. Bakoitzak bere irizpideak izan ditu aintzat. Zeintzuk dira hautagaiak izan beharko lituzketen ezaugarriak? Zein ezaugarri irizten diogu ezinbesteko? Etorkizuneko ikuspegia izatea, baikortasuna, ekimena, konfiantza sortzen jakitea, benetakotasuna, enpatia, konpromisoa adieraztea, gardentasuna,

Gertuko politika egiteko ezinbestekoa da euskara. Ahulezia handia erakusten dute hizkuntza menderatzen ez duten hautagaiak

sormena, kudeatzeko gaitasuna izatea, pertsonengan oinarritzea, parte-hartzea sustatzea... Formazio edo ikasketa bereziren bat izan beharko lukete? Zein hizkuntza menderatu beharko lukete? Zer baloratzen dugu hautesleok?

Gure kasuan, gertuko politika egiteko garaian ere, euskara ezinbestekoa da. Nire ustez, ahulezia handia erakusten dute hizkuntza menderatzen ez duten hautagaiak eta, gainera, ahulezia hori konpontzeko asmorik (izan) ez dutenek.

Horrek, bidenabar, eragina du eguneroko praktikan. Politikariak eragin nabarmena dute hizkuntza prestigiatzean, beren jardueraren dimentsio publikoaren eta hedabideetan egunero-egunero ateratzearen ondorioz, beren hizkuntza erabilera oso garrantzitsu bihurtzen da euskara ere "hizkuntza normala" dela

gizartean zabaltzeko. Eta jendaurrean euskaraz aritzeko, noski, jakin egin behar da.

Gainera, politikariak administrazioen hizkuntza-erabilera guztiz baldintzatzen dute, lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza. Izan ere, administrazio publikoetako langileek (Euskal Herriko administrazio batzuetan bakarrik, eta muga askorekin bada ere) hizkuntza-eskakizunak ezarrita dauzkate. Baina administrazio publiko horietako buruak, kargu politikoak, hizkuntza-eskakizun sistema horretatik kanpo gelditzen dira eta, gehienetan, erabat erdaraz funtzionatzera eramaten ditu egoera honek. Horrek dakar administrazio horren kanporako proiektzioa ere erdaraz izatea, normalean hedabideetan arituko direnak, beste erakunde eta enpresa batzuekin ordezkaritza lanak egingo dituztenak eta erakundearen izenean han eta hemen agerraldiak egingo dituztenak kargu politikoak baitira. Euskaraz jakite hutsak ez dakar erabilera, noski, baina ezinbesteko baldintza da.

Euskal Herrian posible da alkate, zinegotzi, diputatu, lehendakari, sailburu edo kargu politikoa izatea eta euskaraz aritzeko gaitasunik edo-eta derrigortasunik ez izatea. Gure esku dago aldagai hori baloratzea, alderdi politikoen lehentasunen artean ager dadin. ●



**EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa



**EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!**

www.aleka.eus

. BASERRITARRAK SAREAN
. AGROEKOLOGIA
. BIOANIZTASUNA
. BERTAKO EKOIZPENA



Liburu berria

Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

*Eskaintza
berezia*

Apirilaren 17tik 23ra

ARGIAkoa eginez gero
jaso etxean opari

ARGIAko kide
bazara **22 €**-an

azoka@argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

Kronika hauetan aurkituko ditugu atzerriak eta aberriak, gerrak eta kartzelak, elurrak eta itsaso zakarrak, bidaiak eta erromeriak...

Nekez irakur zitezkeen lekuetatik atera eta liburuan bildu ditu Koldo Izagirrek.



ERNAI

Hamar urtez bizitzeko modu bat borrokatzen

Martxoaren 2an hamarkada bete du Ernai gazte antolakundeak. 2013an abiatu zuen ezker abertzaleko gazte antolakunde berria, Lizarran, errepresio eta ilegalizazio arotik zetorren belaunaldiak. Egun, ez dago sorrerako inor Ernairen gidaritzan, eta testuinguru politikoak zein sozialak aldaketa ugari izan dituen bezala, antolakundea bera ere eraberritu da.

 LEIRE ARTOLA ARIN



Belaunaldi berriak hasierakoan transmisioa jaso duela, baina freskotasuna ere ekarri dutela ziurtatu digute Ane Alava (Antsoain, 2000) eta Txomin Aiar-tza (Larrabetzu, 2001) egungo bozeramaileek. Apirilaren 6tik 9ra Eor-rion ospatuko duten Gazte Topagune-ra begira, III. Kongresuan zehaztutako erronkak eta bidean izandako oztupoak kontatu dizkigute. “Belaunaldi krisia-ri” aterabidea emateko “bizitzeko modu bat” proposatzen dute, eta borrokara batzeko deia egin.

Alava eta Aiar-tza “bulkada berrien garaian” batu ziren Ernaira, 18 urte zituztela: “Belaunaldi oso bat batu gi-nen militantziara, gogo handiz, baina hurrengo urtean pandemia etorri zen eta ezin izan genuen transmisioa behar bezala egin; jardun praktikokan nabaritu genuen batez ere”. Dena den, baieztatu dute formakuntzarako probestu dutela aldi hori, eta iaz Olatzagutian itxitako kongresuak balio izan diela datozen ur-teetarako estrategia “borobiltzeko” eta martxa berriari indar handiagoz ekiteko.

Independentzia, sozialismoa eta femi-nismoa. Hiru ardatz horiekin sortu zuten 2013ko martxoaren 2an Ernai, eta egun ere oinarriak bera izaten jarraitzen du, baina hamar urteko bidean arrakala eta eztabaida ugari kudeatu behar izan di-tuzte. “Ernai da gazteria” aldarrikatu zu-ten Lizarran orduko hartan ehunka gaz-te independentistak, *ZukGua* prozesua burututa. Hego Euskal Herriko 2.500 bat gaztek hartu zuten parte prozesuan, eta azpimarratu zuten “itxaropenaren alde” altxatzen ari zirela gazte euskaldunak.

Ez zuten bertatik bertara ezagutu I. Kongresu hura ez Alavak ez Aiar-tzak, baina jakin badakite nondik datorren euren antolakundea: “2013an itxarope-naren aldeko apustua egin zen estrate-gia aldaketa baten baitan. Ziklo politiko berrira egokitu zen gazte antolakundea, koloretsua, bizia, zabala; ilegalizazio ga-raietan mugatuta eduki zuten eragiteko gaitasuna berreskuratu zuen”, gogorara-zi du Alavak. “Itxaropenarena”, testuin-gurua bera baino, hautu politikoa izan zela dio. Sistema apurtzeko nahiarekin berrantolatu ziren duela hamarkada bat, eta sistemaren errepresioa jasan dute ordutik. Lehen urteetan bortitzagoa, bai-na gaurdaino iraun duena: atxilotetako, zenbait delitu leporatzea, Poliziaren ji-poiak. Halere, ez dira geldirik egon ki-deak, eta ezagunak dira urte hauetan egin dituzten mobilizazioak eta era guz-

“Belaunaldi aldaketak freskotasuna ekarri du eta ahalbidetu du kongresua aurrera begira garatzea, eta ez aurreko kongresuarekiko dependentziaz”

Ane Alava

tietako ekintzak; Altsasuko gazteen alde egindakoak, gurutze frankisten erais-teak, errepede mozketak prekaritatea salatzeke, besteren artean.

INURRITEGIAN ARRAKALA

2017ko II. Kongresura antolakundea egoera desegonkorrean heldu zen, bai-na nabarmendu zuten oztopoen gaine-tik hamaika garaipen lortu zituztela eta “borrokak merezi” izan zuela. “Garaipe-naren belaundaldia” zirela aldarrikatu zuten arren, belaunaldi horren zatiketa agerian geratu zen. Apirilaren lehenean itxi zuten Erandion *Inurritegia* prozesua, ezker abertzalearen *Abian* prozesuak emandakoa gazte estrategiara egokitze-ko asmoz. Ez zuten asmatu, ordea, Aiar-tzak berretsi duenez: “Garai hartakoek esan digutenez, 2017ko kongresuaren balorazioetako bat izan zen agian ez zela jakin bete-betean zehaztapen horri heltzen, edo irakurtzen *Abian*en ostean zein izan behar zen Ernaiko itzulpen zehatza”. Antolakundeari argipen estra-tegiko eta diskurtsibo bat ematea falta

izan zuen kongresuak, bozeramaileen esanetan.

Estrategia berriarekin bat ez zeto-zen ahotsek Ernairen bidea zalantzan jarri zuten. “Egia da kongresu horretan handitu zela aurreko urteetatik sortzen zihuan arrakala bat, eta gerora gorpuztu dena gaur egun GKS bezala ezagutzen den horren baitan”, zehaztu du Aiar-tzak. Barne prozesua babestu zuten militan-teek, ordea, bidean segi zuten, eta be-rretsi zuten euskalgintzan, feminismoan eta internazionalismoan borrokatzen diren eragileekin elkarlana bultzatuko zutela, “euskal sozialismoa gaurdanik eraikitzeke”.

Ernaik GKSren aurrean hartutako es-trategiaz galdetuta, Aiar-tzak dio erabaki nagusia izan dela euren norabide pro-pioa garatzea: “Gai horri dagokionean, gazte antolakundek zerbaitetan asma-tu izan badu da gure ekinbidea horre-kiko dependentzian baino, gure estra-tegia propioaren mesedetan egitean”. 2018-2019an egin zuten plan politikoa termino horietan egin zutela dio, baita 2022ko III. Kongresukoa ere.

GKSk Ernairi eta ezker abertzaleari kritikak egitea ez dela berria diote bo-zeramaileek: “Ezker abertzaleak bere historiako 60 urte hauetan ia beti izan du bera baino ustez ezkerrerago ko-katzen den sektore edo korronte bat, kritika politikoak egin izan dizkionak, izan interklasista delako, izan estrategia jakin bat duelako, eta beti bizi izan gara horrekin”. Jakitun dira Euskal Herriko oraingo testuingurua ezberdina dela, baina gogorazazi dute Ernairen borro-ka antolakundetik harago doala. “Jakín behar dugu errealtate honetara ego-kitzen. Baina gu ez gaude hemen gure markapean lan egiteko, gu ez gara an-tolatzen erakusteko zer nolako indarra dugun Ernain eta gure marka erakutsi eta eratzeko. Badugu askoz haratago doan proiektua ere”, nabarmendu du Aiar-tzak.

Alavak ere azpimarratu du Ernairen bertutea dela herri mugimendu eta gaz-te mugimendu anitzekin elkarlanean lan egiten dutela: “Herri mugimendu zabalaren mesedetan garatzen dugu jar-dunaren parterik handiena. Eta hori da gazteak politizatzeke espazio naturale-na. Azken aldian, esaterako, neska gazte asko batu dira Ernaira, talde feministe-tatik etorri direnak, eta jarraitzen dute mugimendu feministan ere lan egiten”. Mugimendu ugariaren borrokak uztar-tzearen alde egiten dute, beraz.



Hezkuntza eta naziogintza izan dira III. Kongresuan zehaztutako lan ildo nagusiak.

ENDIKA PORTILLO / FOKU

BELAUNALDI BERRIAK, FRESKOTASUNA

III. Kongresuak berriasuna ekarri du Ernaira, eta horrelaxe heldu dira hamargarren urteurrenera: hasierako oinarri berarekin, baina gidaritza eta begirada berriarekin, eta ahulgune bezain indargune dela ondorioztatu dute egungo eledunek. "Gidaritzan belaunaldi berria izateak sortzen zituen arriskuak maila batean, baina baita aukerak ere. Ia intuizioz jakin izan dugu oreka hori mantentzen, eta uztartu ditugu, batetik, aurreko belaunaldiaren irakaspenak eta hausnarketa politikoak, eta, bestetik, gure belaunaldiak ekarri dituen ideia eta hausnarketa berriak". 2018ko plan politikoan zehaztu zuten gazte frontea eratzea, gazteak aktibatzea eta militante olatua erakartzea, eta azken kongresua baliatu dute ideia horri "iris-men estrategikoa" emateko. Gainera, proposamen berriak ere mahaigaineratu dituzte, hala nola borroka transmarriboltoa, orain arte erdigunean jarri ez dutena.

Sistemarekiko eta Espainiako zein Frantziako Estatuetikiko desatxikimendua dute gazteek, eta etsipen hori aktibazio politikoan bihurtu nahi du Ernaik

500 militante baino gehiago batu ziren Olatzagutian iaz, ekainaren 25ean, eta *Ehotzen* txostena onartu zuten, datozen lau urteetarako estrategia zehaztuta. Haietatik asko aurreko bi kongresuetan egon gabeak ziren, eta horren eragina nabaritu zen, Alavaren esanetan: "Belaunaldi aldaketak freskotasuna ekarri du, eta ahalbidetu du kongresu hau aurrera begira garatzea, eta ez aurreko kongresuarekiko dependentziaz".

Dependentzia ez, baina oinarria izaten bai segi du Lizarran esandako hark: independentzia, sozialismoa eta feminismoa dituzte helburu, gazte euskaldunentzat bizigarri izango den herri bat. Alavak berak azpimarratu zuen kongresuan xede hori lortzeko "indar berezia" egingo dutela "aldarrikapen mugimenduak eta proiektu alternatiboen erakuntza" sustatzen.

HEZKUNTZA ETA NAZIOGINTZA

Olatzagutian bi lan ildo garrantzitsu zehaztu zituzten datozen urteetarako: hezkuntza eta naziogintza. 2018ko

urrian Ernaik jakinarazi zuen Ikasle Abertzaleak antolakundearekin zuen “aliantza estrategikoa” eten zuela, argudiatuz “zeharo aldentuta” zeudela haien hezkuntzaren inguruko “ikuskerak eta praktika politikoa”. Ikama sortu zuten ezker abertzalearen ildoan lan egiteko institutu, unibertsitate eta bestelako eskoletan, baina, orain, 2022ko kongresuan formalki jaso dute Ernairen hezkuntza estrategiaren berritzea.

2018ko uztailan ARGIAk Ernairi egindako elkarrizketa batean Asier Zamorano orduko bozeramaileetako batek autokritika egin zuen esparru horretan: “Nire ustez, azken urteetan ez diogu egoera gordin honi heldu eskatzen zuen indar eta iniziatibarekin. Hezkuntzaren esparruan gauza gutxi egin dugu azken aldian. Orain hasi gara diskurtso egituratuagoa jendarteratzen”. Ia bost urte geroago, Aiarzak eta Alavak diote horri buelta ematea lortu dutela.

Martxoaren 2ko urteurren ekitaldian nabaritu zen hezkuntzan eragiteko erabakia: unibertsitateetan fokua jarri zuten, antolakundea hezkuntza eragile gisa berresteko, eta egitarau zabala osatu zuten campusetan. “Unibertsitateetako proposamen politikoa osatu genuen orain dela bi urte, eta Ernairen dinamika politikoa horietan egotea ezinbestekotzat jotzen dugu. Unibertsitatea gazte pila bat biltzen duen espazioa izanik, bertan egotea garrantzitsua iruditzen zitzaigun”.

Naziogintzari dagokionez, panoramaren irakurketa hau egin dute: “Ikusten dugu gazteek ez dutela Espainiako ezta Frantziako Estatuetik atxikimendurik, baina, aldi berean, atxikimendu falta horrek ez ditu gazte independentistak sortzen”. Ernaiko gazteek uste dute “zeregin garrantzitsua” dutela horretan, eta “euren gain” hartu dute “naziogintzari dagokion espazio osoan bultzada bat emateko ardura”.

GAZTEEN AKTIBAZIOA, ERRONKA

Azken kongresutik ateratako ondorioen artean, nagusietako bat izan da gazteek sistemarekiko eta kapitalismoarekiko desatxikimendua dutela, baina baita pasibitatean murgilduta daudela ere. “Etsipen hori ez da aktibazio politiko eraginkor eta eraldatzaile batean bilakatzen”. Hutsune horretatik dator Ernairen erroka nagusia: “gazte frontea eratzea”. Baina nola sortu gazte independentistak? Nola sustatu gazte olaturak? “Txikitasunetik asko dauka”, Ala-



“Gidaritzan belaunaldi berriak izateak sortzen ditu arriskuak baina baita aukerak ere”.

“Ernaik zerbaitetan
asmatu badu da
gure ekinbidea
GKSren
dependentzian
baino, gure
estrategia
propioaren
mesedetan egitean”

Txomin Aiarza

varen erantzuna. “Egunerokotasunean dauzkagun arazoekin konektatzea eta horiei borrokarako espazioak ematea da gure lana, eta alternatibaren eraikuntzarako tokiak ematea”.

Bozeramaileek sinesten dute ekintza txikietatik gauza handiak lor daitezkeela, eta horregatik, herrietako dinamikei garrantzia ematen ari dira azken

hilabeteetan. “Ikasturte honetan borroka ideologikoari eta aldarrikapenen sozializazioari ekin diogu, baina egia da dinamika lokalei garrantzia berezia eman nahi izan diegula. Problematika konkretuei eta herri bizi diren horien eraldaketari ekin diogu”.

“Eraldaketa sozialen alde lerratzen den ororen erroka nagusietakoa da ondo irakurtzea zeintzuk diren jendarteren eta gazteriaren baitan indartzen ari diren joerak, pultsioak eta nahiak, eta horiekin ondo konektatzea”. Aiarzak kontatu du antolakundean egindako hausnarketa: “Azken urteetan aldaketa kultural nabarmenak izan dira, jada identitateak ez dira horren zurrinak eta solidoak; askoz aldakorragoak dira, hauskorragoak, eta horrek ere badu itzulpena militantzian”. “Militantzia likidoaz” hitz egin dute, eta gehitu dute joera dagoela gazteria bere gustuko ildo edo borroketan soilik aktibatzeke, proiektu orokoragoetara engaiatu beharrean. “Indartzen ari diren joeretara ondo egokitzen jakin behar dugu, eta horien baitako proposamen politikoak egiten, betiere ulertuta tentsio hori ondo mantentzen jakin beharko dugula”, argitu dute.

Garai likidoetan, militantzia helduleku gisa ikusten dute, eta gazteak ere horretara animatzen dituzte. Etsipenaren aurrean eta pandemiaren testuinguruan, Ernaiko jarduna euskarri izan dute: “Proiektu politiko bat izatea, benetan egingarria den estrategia bat,



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Epaituta zeuden Ernaiko zazpi gazteren alde manifestatu ziren Bilbon 2022an.

lorpenak gutxinaka ikustea...". Finean, militantzia bizitzeko modu bat dela diote, Gazte Topagunerako hautatutako leloak dioen bezalaxe.

GAZTEAK BELAUNALDI KRISIAN HONDORATUTA

Hamargarren urteurrenean plazartutako irakurketan argi utzi zuten kapitalismo zisheteropatriarkalak modu berezitan kolpatzen duela belaunaldi gazte hau. Besteak beste, etekin ekonomikoa lortzeko baliatzen delako sistema kapitalista: "Herri eta langile klaseen baitan dauden sektore zaurgarrienak baliatzen ditu, bertatik sistemaren erreprodukzioa jarraitzeko eta kapital metaketa handiagoa lortu ahal izateko. Historikoki gazteriak bete izan du paper hori, gazteriaren lan indarra baliatzen da kapital metaketa are handiagoa eskuratzeko". Xeheago gehitu du Alavak: "Gaztaroa ezeren jabe ez garen momentu bat

"Egunerokotasunean dauzkagun arazoekin konektatzea eta horiei borrokarako espazioak ematea da gure lana, eta alternatiben eraikuntzarako tokiak ematea"

Ane Alava

da, eta horretaz baliatzen da sistema. Ezeren jabe ez diren eta emantzipazioaren bila dauden gazteak are modu bortitzagoan esplotatzen ditu".

Testuinguru honetan, antolakundetik salatzen dute gazteriak ez duela bizi espektatibarik, eta ezin dutela bizi ibilbiderik imajinatu hemendik 20-30 urterako, bizi baldintzak nabarmen kaskartu direlako. Horren aurrean, Ernaik zera proposatzen du: "Kapitalismoaren aurpegi garbiketa diren neurriak baino, errotiko aldaketa egitea. Horregatik, ikasturte hasieratik abiarazitako kanpainan hori islatzen saiatu gara: orain dugu aukera dena aldatzeko". Krisia baliatu nahi dute sistemaren eraldaketarako.

TOPAGUNEA, GOGOETARAKO

Hamar urtean aldaketa ugari izan dira Euskal Herrian zein nazioartean. Eztabaida berriak mahai gaineratu dira, eta gogoeta zaharrei ikuspegi berriak



DANI BLANCO

gehitu zaizkio, belaunaldi berriekin batera. Alavak eta Aiartzak aitortu digute azken kongresuan gatazka handien sortu duena izan dela lan ildoen lehentasunak markatzea. Esaterako, krisi ekosozialaren aurrean ez dute gazte mailako estrategiarik ondu, nahiz eta Ernai ekologismoan “apustu handia” egiten ari den belaunaldi arteko mahaian. Zalantza piztu duten beste bi auzi izan dira dekolonialitatea eta antirrazakeriarenak. “Arazo horiek kontuan hartzen ditugu, baina Ernaik horiekiko diskurtsoa ez izateak kezka eragiten digu”.

Estrategiaren baitan ez badauzkate ere, gai horiek guztiak bildu dituzte Elorriorako prestatu duten egitarau zaballean. “Gazte Topagunea gure eskuz eta indarrez eraikitako herri alternatiba txikia da, eta hausnarketak egiteko aukera izango dugu han”. Aberri Egunaren bueltan, apirilaren 6tik 9ra bitartean Euskal Herri osoko gazteak elkartzeko gunea izango da Gazte Topagunea, eta hitzaldi eta mahai-inguru andana lotzea apustu argia izan dela diote bozeramaileek: pil-pilean dauden eztabaidak jorratzeko plaza bilakatu nahi dute Elorrio. Polizia eredu, krisi ekosoziala, energia krisiaren aterabideak, migrazioa, hezkuntza legeak, euskara, maskulinitate ereduak, transfeminismoa, klase borroka,

nazioarteko gatazkak eta begirada internazionalista... hitzaldi sorta anitza egongo da, eta hizlari erreferenteak egongo dira, bertakoak nahiz nazioartekoak. Ernairen asmoa da topaguneko gogoetak aurrera begira baliatzea.

Horrez gain, ospakizunera-ko egunak izango dituzte, hamar urteko ibilbidea goraipatuko dute, baina oro har gazte antolakundeetan aritutako militanteak elkartzeko momentua izatea nahi dute. “Gakoa da, besteak beste, egitarauak berak daukan erakargarritasuna, eta topaguneetan beti sortzen den giroa: lo gutxi egin eta eguna ahalik eta gehien probestearen grina eta nahia”, laburbildu du Alavak. Gaueko egitarauera-ko ere izen esanguratsuak lotu dituzte: Süne -aurtengo kantua-aren egilea-, Merina Gris, Ezpalak, Iheskide, Odei, Su Ta Gar, Olaia Inziarte, Lukiek, eta musika panoramako beste hainbat talde ere.

Ernaik erakutsi nahi du bizitzeko modu hori posible dela, eta gazteek festarako gogoia izateaz gain eraldaketarako indarra ere badutela, independentistotik, sozialistotik, feminisotik, eta azken urteetan pizten ari diren mugimendu anitzetatik. Hemen eta orain ernai daudela berretsi nahi dute, Elorrioko azken topagunetik 21 urtera, eta Lizarrako kongresutik hamarrera. ●



“ ”

Ingurumenean ere enpresa txikiok gure norabidea jarri behar dugu

Aiala Zubieta Bertiz

Ingurumenaren eta jasangarritasunaren inguruan aholkularitza eskaintzen duen Isladak kooperatibako kidea da Aiala Zubieta Bertiz. Berriki, formazioa eskaini die ekonomia eraldatzaileko kooperatiba eta proiektuei, Beterri Saretuz ekimenak Usurbilgo Lanbide Eskolan antolatuta, enpresen iraunkortasunean ingurumenak duen garrantziaz jabetzeko: “Garrantzitsua da enpresa edo erakunde moduan ingurumen politika bat izatea”, esan digu.

URKO APAOLAZA AVILA  DANI BLANCO

Hernaniko Iturola Elkarlan Sorgunean elkartu gara Aiala Zubietarekin. Han du egoitza Isladak kooperatibak, eta han egin ohi du lana egunerokoan, Eider Larrañaga eta Susana Torregaray lankideekin batera. “Isladak pandemia garaian sortu zuten Susanak eta Eiderrek, eta gero ni sartu nintzen. Argi genuen beste pertsona batzuekin elkarbanatzeko espazio bat izan nahi genuela; gure ustetan hori baita gizarte jasangarriagoa egiteko bidea, eta hori da kooperatiba honen filosofia”.

Aholkularitza lana egin ohi dute, batez ere administrazioarentzat, baina baita enpresei bideratua ere: “Enpresa askok ingurumen kudeaketa sistemak

eskatzten dizkigute, edo ISO estandarrak ezartzea. Beste askok lege betekizunak dituzte eta horretan laguntzen diegu”. Baina horretan bakarrik ez, legeek jasotzen ez dituzten aparteko beste neurri batzuen inguruan hausnartzeko bidea ere ematen diete: “Enpresetan egunerokoan gauza asko egin daitezke ingurumenari dagokionean. Haiekin pixka bat hitz egiten hasi orduko ideia pila bat ateratzen dira”.

Beterri Saretuz ekimenak antolatutako formazioan ere ideia mordoa aterako zen. Baina zein izan da saio horren helburua?

Azken urteetan berdintasuna, euskara, gardentasuna eta beste hainbat gai

garrantzitsu landu izan da enpresetan, eta orain ematen du ingurumena “modan” dagoela, energiari guztiz lotuta. Baina energiaren harago badaude beste arlo asko landu daitezkeenak, horretaz aritu gara. Ekosistemek enpresa eta pertsona bezala egiten diguten ekarpena zehazten saiatu gara batez ere. Airearen kalitatea, uraren kutsadura, biodibertsitatearen galera... hori guztia lantokitik kanpo balego bezala ikusi ohi dugu, baina berdin-berdin jasaten dugu: gure osasunean eta ingurumenaren osasunean eragiten dute. Trantsizio energetikoaz eta klima aldaketaz ere aritu gara, noski, baita ekonomia zirkularraz ere; modako hitz bihurtu diren arren, betidanik landu izan ditugu.





Askotan, kontzeptu horiek bihurritu eta egungo ekonomia ereduak justifikatzeko erabili ohi dira.

Eredu horren barruan gauza asko kontrajartzen dira: badirudi trantsizio horrek ez diola ingurumenari kalterik egingo, guk emaitzak bakarrik ikusten ditugulako, baina prozesu osoa ikusiz gero konturatuko gara kalteak hor jarraitzen duela. Hitzak eta kontzeptuak Europatik etortzen zaizkigu bueltan, eta bakoitzak bere modura ulertzen ditu; zentzu desberdina ematen zaie eta nobere interesen arabera erabiltzen dira. Horri buruz ere hausnartzen saiatu gara formazio saioan.

Kutsaduraz hitz egitean enpresa handiak datozkigu burura.

“ ”

Beste arlo askotan bezala, ingurumenean ere prebentzioa da eman beharreko lehenengo pausoa

Erantzunkidetasunaz solastatu dezakegu nahi izanez gero, eta hor handiek noski badutela zeresana, baina txikiok ere egin ditzakegu gauza asko. Imajina ezazu zure etxea dela enpresa –zeren eta zer-

bitzuetan lan egiten dugunok antzeko baldintzak ditugu etxean eta lantokian–, zer egin? Hondakinak nola kudeatzen diren, erosketak noiz eta nola egiten diren, kontsumitzen ditugun produktuak nola ekoiztu diren... hori guztia ikusi beharko genuke. “Erosketa berdea” deitzen zaion ideia dago hor: agian guk bakarrik, txikiak izanda, ezin dugu hornitzaileengan eragin ingurumen irizpideak bete ditzaten, baina enpresa txiki asko elkartuta errazagoa izan daiteke; gainera, gure ohi-turak aldatu ditzakegu eta filosofia hori txertatu egiten ditugun erosketetan.

Eta nola jakin daiteke produktu baten bizitza ziklo osoan zer egiten den?

Egia da batzuetan zaila izaten dela, informazio eta ezagutza falta dagoelako. Baina logika apur bat erabiltzeak laguntzen du: plastikoa baino material jasangarriagoko produktuak erostea, adibidez; eta nik Hernanin egiten badut lan, produktu hori Hernanin egina dagoen ikustea. Hornitzaileek ziguiluak izaten dituzte produktuak nola ekoitzi den adierazi eta ingurumenari ez zaiola kalterik egin ziurtatzeko. Ziurtagiri mordoa dago! Lehengaia nondik datorren, gertukoa ote den, ontzietan sartu gabe soltean erosi daitekeen... Etxean bezala, enpresan ere kontuak egin behar dituzu.

Ekonomikoki bideragarria ote den, horri ere begiratzen dio estu dabilenak.

Gaur egun, ekologikoak, tokikoak eta jasangarriak diren produktuak ez dira kobentzionalak baino garestiago. Baliteke lehengai batzuetan diferentziak egotea prezioetan, baina beste askotan ez. Adibidez, bulegoko materialari erreparatzen badiogu, paper birziklatua izan edo ez, alderik ez dago, eta gauza bera gertatzen da boligrafo birziklatuen kasuan.

Buruan sartu digute ekologikoa edo tokikoa izateagatik garestiagoa izan behar duela, ideia zaharretan oinarrituta, baina gaur egun ez du zertan horrela izan. Inbertsioa ere bada hein batean, halako produktu batek gehiago iraungo baitu seguruenik. Gainera, jasangarritasunaz hitz egitean ez gara ingurumenaz soilik ari... Agian gehiago ordaintzen duzu, baina hori sortu duen pertsonak baldintza duinagoak izango ditu, eta tokiko ekonomia ere indartuko duzu.

Trantsizio energetikoa egiteko berriztagarriak ari dira bultzatzen erakundeetatik. Baina energia sortzen hasi aurretik zein pauso eman beharko lukete enpresa batean?

Beste arlo askotan bezala, ingurumeneari ere prebentzioa da lehenengo pausoa. Energia erakinetako argiteriarekin eta berogailuekin lotzen ditugu beti, baina inportantea da enpresa bakoitzak ikustea non kontsumitzen duen gehien; zeren eta energia gastatzea ez da bonbilla bat piztea bakarrik. Guk udalerrien energia kontsumoak aztertu ditugunean, ikusi izan dugu garraioan joaten dela kontsumo zati handiena, ez bada herri oso industrialak behintzat; pertsonok egiten ditugun bidaiak horiek guztiak herri baten energia kontsumo osoaren



BIRA PRODUKZIOAK

Usurbilgo lanbide eskolan formazio saioa eskaini zien Aiala Zubietak Beterri Saretuz ekimeneko proiektu komunitarioetako kideei. Ingurumenak enpresen iraunkortasunean duen garrantziaz hausnartzeaz gain, partaide bakoitzak bere erakundera etxeko lan batzuk eraman zituen.

“ ”

Ohitura aldaketak sustatu behar dira, eta garraioarekin ongi ikusten da hori: nola joaten gara lanera?

erdia baino gehiago suposatzen dute askotan. Bada, goazen ikustera enpresa barruan zer gertatzen den. Seguruenik garraioak pisu handia izango du, baina energia asko kontsumitu daiteke makineriarekin, ordenagailuekin, argiterian, eraikina isolatua dagoen moduan... Energia eraginkortasunez erabili behar da, eta pauso pila bat eman daitezke sortzen hasi aurretik.

Lanaren antolaketa, esaterako? Pandemiarekin telelana iritsi zitzaigun.

Hor ere badaude kontraesanak. Telelana joan-etorriak murriztu ditzake enpresa batean, baina zer ari da gertatzen? Egun batzuetan batzuk eta hurrengoan besteak, argiak, berogailuak eta zerbitzariak piztuta egoten direla bulegoetan aste osoan, eta etxeetan ere dena piztuta. Oreka bilatu behar da: zer da hobe, bilera bat telematikoki egitea, edo bilera horretara auto konpartituan joatea? Eta kezka bera sor liteke eguzki plakekin.

Energia berriztagarria sortzen dute, bai, baina hemendik hogeita hamar urte barru zer egingo dugu horiekin? Nola ku-deatuko ditugu hondakin moduan?

Baina badira ikuspegi integralarekin sortu diren energia berriztagarrien komunitateak, Hernanin gaude eta Hernani Burujabe izan daiteke adibide bat...

Jakina, ez da gauza bera etxe bakoitzak bere plaka edukitzea, edo teiltuan egin-dako instalazio fotovoltaiakoa komunitate oso batek erabiltzea. Komunitate hori energiari haragoko beste eremuetara zabaltzea da eredu horren helburua eta gakoa, elikadurara edo mugikortasunera, adibidez.

Soluzio teknologikoez hari gara, baina langileen artean konfortaz ere hitz egin beharko litzateke?

Ohitura aldaketak sustatu behar dira, eta garraioarekin ongi ikusten da hori: nola joaten gara lanera? Garrantzitsua da erakunde moduan ingurumen politika bat edukitzea eta helburu batzuk adostea, behin horiek jakinda errazagoa delako ekintzak aurrera eramatea. Kalefakzioa 22 gradutara jarri beharrean 19 gradutara jarriko dugu? Errazagoa da hori erabakitzea helburu batzuk adosten badira. Enpresa txikietan egunez egun joaten gara, eta zaila izaten da.

Mercedes-Benzen errazago implementatuko lituzkete horrelako neurriak...

ERAKIDE

*Praktika onak
sustatzeko tresna*

Enpresetan erantzunkidetasun soziala zabaldu eta praktikan jartzeko sortu zen Erakide tresna, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatua. Elhuyar Fundazioak, eta Emun, Aztiker eta Farapi aholkularitza kooperatibek enpresetan egiten duten diagnostikoari, ingurumen ikuspegia ere eman dio orain Isladak-ek. “Ekologiaren inguruan galdera batzuk egiten ziren, baina oso azalekoak ziren, eta guri proposatu ziguten horri buelta bat ematea”, azaldu digu Aiala Zubietak.

“Beste galdera batzuk txertatu ditugu, enpresei pentsatuarazi eta ideia berriak emateko. Aldi berean, lau erakunde horiek formatu ditugu, beraiek ere jakin dezaten zer eta nola galdetu”. Orain, enpresetan ingurumen arloan ere “praktika onak” sustatzeko adibideak bilzen ari dira, beste arlo batzuetan egiten den bezalaxe.

Errazago ez dakit, baina seguruenik baliabide gehiago izango dituzte ingurumen ekintzak aurrera eramateko. Hala ere, ingurumenaren arloan enpresa txikiok ere gure norabidea jarri behar dugu.

Trantsizio digitala aukera bezala saldu digute, baina “lainoa” asko kontsumitzen duten superordenagailuetan dago. Harrapatuta gaude?

Aurrekoan irakurri nuen bitcoindun trantsakzio baten karbono aztarna Visarekin 1,65 milioi trantsakzio egitea bezala zela, eta 64 mezu elektronikoko bidaltzea autoz kilometro bat egitea bezala. Dena denez fikziozkoa, ez duzu ukitzen, ez duzu ikusten... Orain asko ari dira hitz egiten digitalizazio berdeaz, baina horretaz hausnartu beharra dago. Teknologia ongi dago, baina neurri batean.

Ekonomia eraldatzailean interkooperazioa garrantzitsua



“ ”

*Teilatuak baliatzen
ari gara eguzki plakak
jartzeko... Eta zergatik
ez ditugu teilatu
berdeak egiten?*

da, ingurumen jasangarritasuna bermatzeko ere balio dezake kooperatiben arteko elkarlanak?

Lehenik eta behin, ondokoagatik ikasteko balio dezake, eta ondokoak modu jasangarriagoan egiten badu, zurrera ekartzeko. Lehen aipatu ditugun energia komunitate horiek sortu daitezke lantokiaren eremuan, asko aurreztu daiteke eta ekonomikoki ere bideragarriagoa da; edo aliantzak egin hondakinak jasotzeko... Saretze horrek beti ekartzen ditu onurak.

Lantokia pabiloi grisetan izan ohi dugu askotan. Lan mundua natura dagoen tokira hurbildu beharko litzateke? Edo alderantziz?

Nik uste errazagoa dela natura lantokira ekartzea. Nahikoa min egin diogu jadanik naturari eta hobe da hiritartuta

dauden eremuetan txertatzea. European irtenbide asko ari dira lantzen. Adibidez, teilatuak baliatzen ari gara eguzki plakak jartzeko... eta zergatik ez ditugu teilatu berdeak egiten? Teknikoki zailtasunak ditu, baina eraikina isolatzeko, gutxiago kontsumitzeko eta korridore berdeak sortzeko balio dute halakoek.

Bestalde, industriaguneetan berdeguneak daude ikusten ditugun moduan, zergatik ez ditugu lorategi gehiago sortzen? Goazen hori guztia zaintzera lan eremuak naturalago egiteko. Konektibitatearentzako ere onuragarria da zementuzko eremuak berdetzea, askotan barrera izugarria baikara animalia eta landare espezie askorentzat.

Klima larrialdia CO2 isuriekin lotzen da, baina garbi dago biodibertsitatearen galerak ere baduela garrantzia.

Klima aldaketan bi aldagai daude. Arintzea da lehena, hau da, ahalik eta berrotegi efektuko gas gutxien isurtzeko neurriak hartzea, Kiotoko protokolotik hasita egin nahian dabiltzana. Eta bestea egokitzea da. Klima aldaketa hemen dago, eta horri egokitzeko zer egingo dugu? Bada, lanean ere zer egingo dugun pentsatu beharko genuke. Naturan oinarrituriko konponbideak sartzen dira azken aldagai honetan. Biodibertsitatea zaintzen badugu gure osasuna ere zainduko dugu. ●

Ongizatearen arrakasta

Lasarte-Oriako Oriarte institutuan emaitza positiboak izan dituzte Ongizate proiektua abiatu eta bi urtera. Eskolatik bazter gelditzeko joera zuten ikasleak mantentzea lortu dute. Gakoa: eskola bilakatzea ikasleentzako ingurune seguru.

 LIDE IRAOLA  ORIARTE INSTITUTUA

Ikasleak lanik ez egiteak ez du zertan alferkeria edota gaitasunik eza izan, eta hezkuntza langileak jabeturik daude horretaz: “Emozionalki ikaslearen oinarritzko beharrak aseta ez baldin badaude, oso zaila izango du ikasketei begira jartzea”.

Bigarren ikasturtea da Lasarteko Oriarte institutuan Ongizate proiektua martxan dagoenetik. Ikasteko motibaziorik gabe eta laguntza psikologikoaren premiarekin ikusi dituzten ikasleengan jarri dute arreta, ikusita gela arruntetako metodologiak ez diela mesederik egiten.

Aurten, esaterako, hamar ikasleko taldeak hartu du parte. Lehen hiru orduak gela arruntan egiten dituzte, laguntzarako bigarren irakasle batekin. Azken hiru orduetan, Ongizate Gelan biltzen dira hamarrak, eta proiektua lan egiten dute. Bi irakasle aritzen dira beti bertan, eta ikasle bakoitzaren jarraipen estua bermatzen dute.

Proiektuaren koordinatzailea da Maria Luisa Garmendia. Nabarmendu du garrantzitsua dela ikasleentzat ingurune

segurua izatea eskola, entzunak, ulertuak eta lagunduak izatea. Kasu askotan eskolaz kanpo horretarako guneen falta dutela azaldu du Garmendiak.

Eguneko lehen lana harrera egitea izaten dute hainbatetan. “Gustatuko litzaiuke ikasle guztiei galdetu ahal izatea ea zer moduz dauden, baina ulertzen dugu batzuek behar handiagoa dutela horretarako. Harrera egitean, lehenik egun txarrei buelta ematen saiatzen gara, eta gero lanean jarri. Eta pixkanaka, ikasten ari dira emozionalki apal egonda ere ikasketei begira jartzen. Ikusten dute bizitza halakoxea dela”.

LEKUZ KANPO

Gela arruntan “lekuz kanpo” sentitu ohi diren ikasle hauek absentismora jotzen dute. Oriarte institutuko zuzendariordea da Diego Lopez, eta azaldu du betidanik izan dutela begirada jarrita profil jakin horretako ikasleengan. Hala ere, ez berak ez Garmendiak ez dute zalan-tzarik: pandemiaren ostean larriagotu egin da gazteen buru osasuna. Hainbatetik bizitako egoera “oso gogorrek” eta

bakartuta egoteak eragina izan dute.

Lasarteko institutuan horri erantzun beharra ikusi zuten, eta aldi berean iritsi zitzaizen Hezkuntza Sailaren elkarlanerako proposamena. Bien ideiak uztartu eta 2021-2022 ikasturtean abiatu zuten proga pilotua, gaurdaino. Momentuz, Oriarten bakarrik jarri dute martxan.

Bi ikasturteren ostean emaitza positiboak ikusi ditu lantaldeak. “Ikasle hauek eskolara etortzea lortu da, eta tontakeria dirudi, baina pauso oso garrantzitsua da. Kasu batzuetan eskolaz kanpoko bizimodua desestrukturatu dute, eta institutua da egituratuta duten gauza bakarra”, iritzi dio zuzendariordeak.

Iaz 2. mailako 11 ikasle ziren, eta horietatik bederatzi 3. mailako dibertsifikazio gelara pasa ziren. Kontuan izanik ohikoena dela ikasle hauek derrigorrezko hezkuntza utzi eta beste bideak hartzea, aldaketa goraipatu dute: “Onuragarria da urte batzuk gehiago jarraitzea beren herrian ikasten, eta adineko gazteekin harremanak ez moztea. Gainera, dibertsifikazio gelan jarraipen estua egiten zaie eta titulatzeko bidea erraztu”.



Azken hiru orduetan, Ongizate Gelan biltzen dira hamar ikasleak, eta proiektuka lan egiten dute.



TALDE LANEAN ETA ERA PRAKTIKOAN

Modu praktikoan ikasten dute Ongizate Gelan. Aurten irratirako fikziozko ipuinak egin dituzte, film laburrak grabatu dituzte Lasarten barrena, eta hurrengo lana komikia dute. Irakasgai kurrikularrak lantzeko proiektuak ere egiten dituzte, eta lehen hiru orduetan eskola teorikoak jaso. Baratzean ere aritzen dira tarteka.

Oriarte da Lasarteko institutu bakarra, eta bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailan 330 ikasle dira. Aniztasuna handia da, eta ohiko hezkuntza sistemarekin irakasleek zaila ikusten dute ikasleen beharretara egokitzea: “Normalean gure helburua bilakatzen da gelan bakea lortzea”, onartu du Lopezek. Ingelesko irakaslea da bera, eta aurten sartu da zuzendaritzan. Orain, ongizate proiektuarekin kontaktuan, ikasleekin harremana estutzea lortu du: “Goizean, etxetik zein aldarterekin datozen jakiten dugu atetik sartu bezain laster”.

Irakasleen arteko talde lana “ikaragarria” dela aitortu du Garmendiak. Hamar bat langile dabilta proiektuaren inguruan, eta astero biltzen dira jarraipena egiteko. Oro har, gustura ari dira sistema berriarekin lanean, baina txanponak beti ditu alde bi: “Ikasleek konfiantza handia

“Ikasle hauek eskolara etortzea lortu da, eta tontakeria dirudi, baina pauso oso garrantzitsua da. Kasu batzuetan, institutua da egituratuta duten gauza bakarra”

Diego Lopez

jartzen dute gudan eta lotura estutzen da. Hortaz, onerako eta txarrerako, gure ongizatean ere eragin handiagoa dute haien gorabeherak”, kontatu dute bi irakasleek.

Eskertuta agertu dira jasotako baliabide eta laguntzagatik. Lasarteko Berri-itzeguneko ordezkariarekin astero biltzen dira, eta aholkularitza eskaintzen diete. Hezkuntza Sailak hiru hilabetean

behin egiten die jarraipena. Formakuntza saioak jaso dituzte, batez ere gaitasun sozio-emozionalen inguruan.

ONGIZATEA BETIKOTZEA HELBURU

“Ongizatearen arrakasta” ikusirik, oraingoz proba proiektua dena betikotzea nahi dute Garmendiak eta Lopezek, bai Lasarten bertan, bai gainontzeko herrietan ere. Baina urrun ikusten dute, exijitzen dituen giza baliabideak aintzat harturik: “Hezkuntza Sailaren esku dago honek aurrera egitea”. Hala ere, datorren ikasturtean Lasarten mantenduko den esperantzarekin, proiektura atxikitzeo ikasle talde berria proposatuko du eskolak.

Lehendik ere bazuten begirada jarrita ikasleengan, eta oraingoan eskua nola luzatu asmatu dutela dirudi. Ongizate Gelan, hamar ikasleak bilduta, haien “ametsak lanbidea” irudikatzeo eskatu die irakasleak. Maketa batean bildu dituzte kiroldegi bat, bideo-joko denda, ospitalea... Garmendia eta Lopezentzat berezia da eskulana: “Ikasle hauek maiz pentsatzen dute ez dutela ezertarako baliu, eta etorkizunari begira jartzea kosta egiten zaie. Baina ikusi dugu horri buelta ematea posible dela”. ●

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

ERLEA

GERRATEAN POZOITUTAKO LURREAN



MATTIN JAUREGI
@BALERDIPEKO

Helikopteroa diruditen liztorrak entzuten ditut noizbehinka erlategian; handikeriaz, erlauntza atarira aurkezten dira erleen aurka, beraien tamaina eta gorputz indartsuarekin. Baina ez da bi espezieen arteko gerra; liztor beltza da gerra bila dabilena berea ez den lurraldea konkistatu nahian, erleak egunerokoan arazorik izango ez balu bezala, presionatuz.

Goizean lorez lore abiatzen den erlea etxera iristerako akabatzen dute liztorrek. Jada pasa dira urte batzuk gerratea hasi zela, liztorrek erlearen bizitza oztopatzen dutela... Erlezainok, lagundu nahi izanagatik ere, ez dugu deus egiterik gerrate hau gelditzeko.

Izurriteena ez da gai berria, egun asko pasatakoak baikara gure etxetako horma artean konfinaturik. Erleen kasuan ere badituzte izurriteak, eta baita itxialdiak ere. COVID-19rik ez, "barroa" izeneko parasito bat da erlea ahultzen duena, erlauntzako biztanle guztiei eraginez. Horri aurre egiteko, erregina espetxeratu behar izaten dugu, preso utziz, arrautzik errun ez dezan. Aka-roak ez du etorkizuneko erlerik topatuko bertan, ugaltu ahal izateko.

Gainontzeko erleak "barroa"-ren aurka tratamendu bidez (txertoa) desinfektatu beste aukerarik ez dagoela ikasi dugun arren, badaude naturalki izurriteari aurre egiteko moduak garatu dituzten erleak. Hor dugu erlezainok erlezain lana, erlea zainduz izurriteen gerratean.

Gurean, bertako erle euskaldun beltza da langilea, baina badira erlauntza eta erlategi asko beste herrialde batzuetako erleekin nahastuak. Zergatik nahastu diren gure erleak beste arrazekin? Interesagatik. Arraza nahasketek



errendimendu handiagoa ekarriko zutela uste zen; baina denborak erakutsi digunez, bertakoa bezain erle langile eta osasuntsurik ez dago, bertan sortutako arraza delako.

Erleen errendimendua handitze aldera ekarri zituzten handiuste horien erruz, bertan ditugu beste herrialdeetako erleak, eta hori da oraingo gerratea: gure erle beltza beste herrialdeetako erleekin nahasteak, bertako arrazaren galera ekar baitezake.

Argi geratu da gizakion interesa arazo handi bilakatu dela naturarentzat, interes ekonomikoa bereziki. Zenbat artasoro berde azken urte hauetan, edo eta zenbat hazkunde azkarreko landare... Jakingo bagenu zer kalte ekartzen dion horrek gure amalurrari! Interes horrek beste arazo asko dakartza katean erantsirik. Pestizidak nahiz ongarrri kimikoak monokultibo horiek indartzeko erabiltzen dira, eta gure lurra pozoitu dugu. Bertatik elikatzen gara, baita erleak ere.

Gerrateak pozoitutako lurrean erleak hiltzen ari dira. Gu ere bai, agian. ●

EUSKAL HERRIKO
AGENDA

APIRILAK 20 / BALIARRAIN

Izei ukendu baltsamiko ikastaroa emango du Garbiñe Larreak, **17:00etan udaletxean.**

APIRILAK 22 / MUNGIA

Jakoba Errekondoren hitzaldia, **Landara Azokan.**

APIRILAK 28 / KORTEZUBI

Izei ukendu baltsamiko ikastaroa emango du Garbiñe Larreak, **18:30ean udaletxean.**

APIRILAK 28 / MARURI-JATABE

Jakoba Errekondoren hitzaldi-kontsultategia **18:00etan Kultur Etxean.**

APEZ BELARRA ETA APEZ JENDEA



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Agustin Kardaberaz Elgorriaga (Hernani 1703-Castel San Giovanni 1770) teologo jesuita bere lagundiko gramatika irakasle izan zen. Idazle joria izan zen eta intsentsu usain artean ibilitakoen artean sona handia izan zuen. 1924an Gasteizko apaizgaitegian, bertako zenbait apaiz eta apaizgaik berari eskainita sortu zuten Kardaberaz Bazkuna. Armiarma.eus guneko literatura zubitegiak dioenez, “Kardaberaz Bazkuna elkarteak Euskal Herriko arte eta historiari buruzko lan garrantzitsuak eman zituen argitara”. Muturraren aurrean dut beraiek argitaratutako liburu eder bat eta atzeko azal hegalean honela dio: “1924’an sortua, Gasteizko Seminarioan, Euskera-ren alde. 1936’an galdua. 1970’an berri-tua. Zertarako? a) Euskera jator batean b) Kristau-pentsakera barruan (ezi zabala) lan egiteko”.

Ederra da egiatan liburu hori, 1975ean aipatutako apaizgaitegian inprimatua, Juan Jose Garmendiaren eskutik: *Landare jakintza. Botanika* du izena eta Guillermo Larrañaga Azpiaz (1905-1978) apaiz azkoitiarrak idatzia da. Edertasuna, tarte-ka behinik, usaindu nahi eta, besteak beste, liburu honi ere heltzen diot.

Heltzen diodanero 69. orrialdera jo-tzen dut. Han dago kotiledon bakarreko landareen artean suge-gerezien familia, guk *Araceae* esaten dioguna, eta, tartean, berak sugegerezi edo apez-belar izanda-tzen duen landarea, *Arum maculatum*. Guk suge-jana edo suge-belarra esaten diogu; ez gabilta urruti, zenbaitentzat sugeak eta apaizak gauza bertsua iru-dikatzen dute, nerontentzat adibidez. Bi apez-belar ditugu: apez-belar nerbio-zuria (*Arum italicum*) eta apez-belar pi-karta (*Arum maculatum*) eta euskaraz izen ugari dute: suge-jana, suge-arto,

suge-artaburu, apez-belar, txorrokai, sugegerezi, suge-mahats, errebelar, su-gerrama, sugrama, zingiri, suge-belar pi-karta, suge-belar nerbiozuri, ilarrondoko, inarrondoko, ilarrondo-belar eta iaro; horiek behintzat bai. Honela azaltzen du apezak apez-belarra liburuan: “Toki busti ta illunzale da. Basoetako orbel artean ageri zaizu udaberrian. Lur janaria erro lodi baten bidez artzen du. Ostoa dardai antzeko, aundi ta eze illun-unez noiz beinka ziprztindurik. Agoratu ta ortzkatzen baduzu orria... lenengoz gozo etsiko, gero, azgura aundia... Zergatik! Osto barruan, karedun oxalatoa, orratzak lez, ugari daro ta mingaina zulatzen dute. Haugatik abere belarjaleak ez dute ez, agoratuko orri gozo hori”. Lore bitxia du apez-belarrak, eta sexu eman-hartua, polinizazioa euliek egiten dute; honelaxe deskribatzen du: “Polen-ikutua eulien bi-dez egiten da. Maluta edo ezpataz behera jetxi ta beheko utzunera sartzen gera. Guretzat nazkagarria den usaiak euliak erakartzen ditu haraino. Termometroa han sartuko bagenu, konturatuko ginake, kanpuan baino giro obeagoa egiten dula zoko hartan. Barruratutako zomorroak beraz, pozean igerika daude bertan. Ala da; gela sarreran dauden ille gogor-rak zomorroi atea itxi diete. Egun batzu han egon beharko; ostatu ona dute”.

Lehen ere idatzi nuen, sotanako ur-dinduen papor-usain lizun artean ibili izan da euskaldunon botanika asuntua: Jose Maria Lakoizketa (1831-1889) nar-bartearra eta Gillermo Larrañaga Azpiaz bera dira begi-bistako adibideak. *Lardizabalaceae* landare familia osoari izena emateko ohorea izan zuena, Migel Lardizabal Uribe (Tlaxcala 1744-Bergara 1824), teologia ikasketak egina zen, eta, harrapazank, ogibidez politikaria. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA



Kaixo Jakoba:
Borrajak landatu nuen eta hazi aurretik lorea ateratzen hasi zaio. Normala al da? Milesker

👉 **Maitane**

Garai okerrean egin duzu landaketa. Borraja maiatza eta iraila artean landatzen da. Loraldia neguaren amaieran eta udaberriaren hasieran izaten du. Landaketa data horietatik gertu egiten baduzu landarea hazi ez eta bere energiak loretar bideratuko ditu. Borraja asko jan nahi baduzu, landatu maiatzaren hasieran eta hurrengo urteko neguaren amaierako loraldia arte nahikoa jaki emango dizu.

ARKATZA

“ORAIN GARAGARDOGILEA NAIZ, BAINA ASMOA DA NOIZBAIT LABORARI ERE IZATEA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Martin Lemaire gazte senper-
tarra dago Arkatza garagar-
dotegiaren atzean. Unibertsita-
tean laborantza ikasketak
egin eta gero, Belgikan izan zen garagar-
doaren inguruko masterra egiten. “Gara-
gardogintzan lanean hastea zen nire as-
moa handik bueltan, baina garai hartan
ez zegoen aukera hori, oraindik ez ze-
goen ia gargardotegi txikirik”, azaldu du.
Azkenean, garagardogintzan beharreen,
ardogintzan topatu zuen lana, eta horre-
tan aritu zen zenbait urtez, esperientzia
hartzen. Buruan eta gogoan, baina, beti
mantendu zuen noizbait garagardora
pasatzeko ideia.

ARDOGINTZAN BEZALA, LABORARI ETA ERALDATZAILE

“Lurra xerkatzen hasi nintzen eta orain-
dik jarraitzen dut horretan, bertan ene
zereala eta lupulua ekoizteko. Ardoan
bezala, lehengaiak ekoiztu eta eraldatu
nahi ditut, prozesu osoa egin”, azaldu
du Lemairek. Lurra eskuratzeko dituen
zailtasunen aurrean amore eman behar-
rean, baina, beste estrategia bat erabili
du gazteak: “Oso zaila dela lurra topa-
tzea? Bada, laborari lagun onak atzema-
tea hautatu dut”, azaldu du umorez.
Hurbilean zereala eta lupulua ekoizten
duten laborariekin ari da elkarlanean,
haiei lehengaiak prezio duinean erosiz.

Hiru urte daramatza martxan Arkatza
garagardotegiak. Osagai guztiak Ipar Eus-
kal Herrian eta modu biologikoan ekoiz-
tziak direla azpimarratu du Lemairek, eta
hurbileko zenbait produktuekin esperi-
mentatzen ere aritu da: arto gorriarekin,
mahatsarekin, ogi beltzarekin... Bitar-
tean, lur bila jarraitzen du, eta lehengai
guztiak ekoizteko adinako zatirik esku-
ratu ez badu ere, bi hektarea eta erdi-
ko lursail txikietan probak egiten ari da.
Aurten, lehenbizikoz, bere zereala biltzea



aurreikusten du. “Lupulutegi txiki bat ere
badut, beraz, 2024 hastapenean, gauzak
ongi bidean, espero dut garagardo batzuk
behintzat joanen direla nire baserritik
ateratako osagaiekin bakarrik”.

HURBILEKO OSAGAIETARA EGOKITUTAKO GARAGARDOA

Hiru motako garagardoak egiten ditue-
la azaldu du Lemairek, baina dioenez,
betiko “klasikoetatik” kanpokoak dira
gehienak. Esaterako, azken aldian oso
boladan dagoen IPA motakorik egiten
ez duela dio. Zergatik? “IPAk ezin ditut
egin, Iparraldeko lupulua ez dagoelako
horretarako. 2022an ekoizpenaren %90
galdu zen, lupulu gutxi ukan dugu, eta
beraz, gutxi erabili dugu. Ez badut ingu-
ruan osagai bat nire oinarrien arabera,

bada, ez dut erabiltzen. Beste zerbait
atzematen dut”. Horratx gaztearen egi-
teko moduaren gakoa.

Azken urtean, gainera, eta ardogin-
tzako bere hastapenetara itzuliz, zenbait
mahasti ere landatu ditu Lurzaindiaren
eremu batean, eta maiatzean gehiago
jarriko ditu. Ardoa ekoizten hastea da
bere asmoa. “Antzeko tresnak erabiltzen
dira bi prozesuetan, eta esperientzia ere,
gehiago dut ardoan”, dio. Itsasun dago
kokatua Arkatza garagardotegiaren tai-
lerra, Euskal Hirigune Elkargoak aloka-
tutako gune batean. Salmenta ere, guztia
Iparraldean egiten du, ekoizle dendetan
eta hurbileko merkaturatze sareetan.
Euskal Herriko garagardoa da Arkatza,
beraz, zentzu guztietan: bertan ekoitzia,
eraldatua eta kontsumitua. ●

EGONARRIA

Lurrari entzungo dion saioa

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Denborak aldatu ditugu. Edo denborak baino, lehentasunak. Garai ez uste bezain urrunetan lehenesten zituzten denborei barre egiten diegu. Orain ez daukagu denborarik zain egoteko. Egonarri gutxiokoak gu. Urtaroen zain egoten ziren gure aurrekoak, bakoitzak ekartzen baitzuen fruituren bat; loretan ziren zuhaitzak etorriko zen jakiaren iragarle baitziren. Eta mimoz zaindu. Eta esperoan egon. Orain, urtaroak ere denboraren nozioa galtzen ari direnean, tomate, piper eta leka urte osoan denda aurki ditzakegunean, orain, denbora lurrari itzuli nahi diogu ARGIAtik.

Egonarria, apirilaren 19an estreinatuko dugun bideopodcast berriak eskainiko dio denbora lurrari. Eli Pagola eta Mattin Jauregi gazteak saioaren gidari, astero 40 minutuko pilulatxo emango digute. Bi ataletan banatuko da emanaldia. Aurreneko zatian lehen sektoreari lotutako gai nagusi orokor bat (energia berriztagarriak, lurra lortzeko zailtasunak, abeltzaintza...) landuko dute gaien jantzia izango den gonbidatu batekin. Bigarren partean, aldiz, proiektu zehatz bat aurkeztuko dute, hau ere gonbidatu be-



DANI BLANCO

Mattin Jauregi eta Eli Pagola ariko dira 'egonarria' saioa gidatzen. Astero 40 minutuko pilulatxo emango digute.

reziekin, lehen eskutik eta aprobetxatuko dute ekoizle txikiak ezagutzera emateko, beraien produktuak dastatzeko, etab.

Gizarteko erronka moduan ikusten du ARGIAk lehen sektorearen biziraupen duina eta saioa gidatzeko bi gazte jartzea ez da kasualitatea. Biek dute lurrarekin lotura. Pagola energia berriztagarrietan formatua da ikasketaz eta gaiari jarraipena egiten dio kazetaritzatik, eta Jauregi, berriz, erlezaina da, Balardiako erleak proiektuko kidea.

Sektoreak baditu lanak, baditu hamai-ka erronka, eta horiez hitz egingo da, noski; baina tristurak eta penak pixka batean

Pandorari gordetzeko esan eta kutsu positiboa eman nahi diote emanaldiari. Erakutsi nahi dute, lanak lan, posible dela lehen sektoretik bizitzea.

Hamabi atal izango ditu oraingoz eta asteazkenetan zabalduko da argia.eus webgunean eta sare sozial guztietan. Gainera, zorte pixka batekin ARGIAko produktuz (Bizi Baratzeko liburuak, Lurra Herriari Deika kamisetak, Xapoketan jolasak...) eta saioko gonbidatuen ekoizpenez osatutako saskia tokatuko zaizu, hilean behin egingo duten zozketan.

Egon, jarri eta ikus/entzun ARGIAren bideopodcast berria! ●

LANDER ARBELAITZ



Eskoziako lehen ministro Yousaf ARGIA elkarrizketatu genuen, duela 15 urte

Humza Yousaf Eskozian lehen ministro izendatu dute, Nicola Sturgeonek dimisioa eman ostean. ARGIArako elkarrizketu zuen Lander Arbelaiz kazetariak duela 15 urte Eskozian, independentzia erreferenduma oraindik egin gabe zegoela, erreportaje zabal baten barruan (QR kodean). 23 urteko gaztea SNPko Bashir Ahmad legebiltzarkidearen idazkari lanetan zebilen orduan: "Bizitza osoa izango dut Eskozia independenteaz gozatzeko", esan zion Arbelaiz Yousafek.



Baina, azkenean, Miguel de la Quadra Salcedo abenturazaleari balio izan zion teknika hark. “Amazonasko indioen artean estatus handia nuen. Estatus hori sekula ez zuen txuri batek izan, nik nuen otordurik onena, hamakarik onena, surik onena, hori guztia xabalinari eskerrak, urrutien nik botatzen nuelako”. Nazioarteko Atletismo Federazioak ukatu ziona aitortu zioten amazoniarrek. ●



/ATIKANOKO MUSEOA

tzeko erabakia hartu zuen, “egiaren bide ekumenikoari jarraitu nahian”. Bitartean espoliatutako pieza gehienak Londresko Britainiar Museoa daude, eta berriki berretsi dute haiek direla Fidiaren marmolezko eskulturen jabe legitimoak, egiaren bideari muzin eginez. ●

“”

*“Gazteak ez dira soilik liburu
interesgarriekin literaturzaletzen,
haiekin egon behar dugu”*

1545 argitaletxea

Xabi eta Eneko Salaberria



Bernat Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuen urteari keinu eginez, 1545 argitaletxea sortu dute Eneko eta Xabi Salaberria anaiek. Aitak ireki zien literaturarako bidea, eta hari segika ari direla sentitzen dute orain. Argitaletxe handiek nekez kaleratuko zituzketen klase guztietako liburuak editatu dituzte 2018tik hona. Irekita daude edozertara, baina haur eta gazteei bideratutako lanetan aritu dira batez ere, literaturaren eta filosofiaren artean zabuka.

KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Liburu artean hazitakoak dira Eneko eta Xabi Salaberria anaiek: “Aita literaturazale amorratua zen, eta etxeko egongelan liburutegi erraldoia geneukan”. Orain, hura hil eta lau urtera 1545 argitaletxea eratzen ari direlarik, hark hasitako bideari segida ematen ari direla sentitzen dute. Bi anaiek literaturarekin duten lotura oso desberdina da, edonola ere: Xabi Lehen Hezkuntzako irakaslea da, pasioz bizi ditu letrak, eta gazteei zaletasuna kutsatu nahian aritzen da egunero. Eneko, aldiz, diseinatzaile grafikoa da, eta liburuak objektu gisara ikusten ditu batez ere. Mamiaz arduratzen da bata, irudiaz eta diseinuaz bestea. Rol banaketa argiari esker, bata bestearen espazioa errespetatzen du, eta eroso aritzen dira argitaletxeak eskatzen dituen lanetan: “Diseinu kontuetan biok sartuko bagina, agian gure arteko talkak hasiko lirateke. Baina, egungo lan banaketarekin, dena primeran doa, ez dugu eztabaidatzen. Nik batez ere produktua bukatuta ikusi nahi dut; Xabik, berriz, zer material falta den ikusten du garbi: hau ez dago, egin dezagun”, azaldu du Enekok.

Argitaletxearen lehen pausoak Enekok berak eman zituen. Oiartzungo Ihotik karta-jolasa argitaratu zuen, eta baita Andoni Egañaren oharrekin osatutako agenda bat ere, 2018koa. Segidan sartu zen Xabi, eta laster haur filosofiara bideratu zuten ikuspegia. Oihartzun Filosofikoa ekimeneko eta Jakinmin elkar-teko kide da bera, eta hurrekin filosofia lantzeko euskarazko materialik apenas dagoela ohartu zen azkar. “Herrian, hurrekin antolatzen ditugun filosofia saioak beti hasten dira pizgarri bate-

*Aita literaturzale
amorratua zen,
eta hura hil
eta lau urtera, hark
hasitako bideari segida
ematen ari dira*

kin: izan daiteke bertso bat, poema bat, artelan bat, eskultura bat... Abiapuntu bat izaten da, aitzakia bat, elkarrizketa filosofiko bat hasteko. Pizgarri bila genbiltzan beti: Matthew Lipmanen –haur filosofiaren aitzindarietako bat– ingelesezko eleberrietara jotzen genuen sarri, baina beti itzuli egin behar. Pandemian, hurrekin aurrez aurreko saiorik egin ezin genuenez, materiala sortzeko garai ona zela otu zitzaigun”, azaldu du. Horrela sortu zen *Hamaika Kutixi Filosofiko*. Izenak dioen bezala, hamaika gai filosofiko biltzen ditu, hamaika ipuin eta hamaika ilustraziok lagunduta. Gainera, ipuin bakoitzari buruzko galderak biltzen dituzten laminak ere osatu dituzte. Hasiera batean Oiartzunen erabiltzeko asmoz sortutako proiektua izanagatik, laster zabaldu zuten Euskal Herri osora. “Jendeak asko eskertu du, ez zegoelako gai hauek lantzeko espaziorik. Hasieran harridura sortzen du: haurrak eta filosofia? Baina gure planteamendua ez da hurrei filosofoek zer pentsatzen zuten

irakastea, baizik eta praktika bat abian jartzea, eta elkarrekin filosofatzea. Probatzen duenak badaki funtzionatzen duela”.

Hiru argitaletxerengana jo zuten, proiektua argitaratzea proposatzera. Ez zen aukerarik izan. Uko horiek dira, besteak beste, beren argitaletxe propioa sortzeko bultzada eman dieten arrazoiak, Enekok dioenez: “Egungo literatur industrian, proiektu interesgarri asko gelditzen dira tiraderan arrazoi jakin batzuegatik: ezohikoak direlako, ez direlako salgarriak... Itxuraz, haur filosofia ez da oso bideragarria. Gainera, guk nahi genuen kaxa formatua edukitzea, lamina eta guzti. Bada, gaur da eguna 700 kaxa saldu direna. Hor topatu genuen gure argitaletxearen xedea, bestela argitaratuko ez diren proiektuak argitaratzean. Erraza zen: autonomoen epigrafean alta eman, argitaletxe gisa erregistratu, eta, hortik aurrera, dena da posible”.

Garaitu hartakoa da *Zergatik nago mundu honetan* liburua ere, haur filosofia saioetan parte hartzen zuen Malen Etxebestek idatzia eta ilustratua. Argitaletxeko *Hipatia* saila estreinatu zuten liburu horrekin. “Hamaika urteko haur talde bat eskolak amaitzean herriko Etxebenek lorategian elkartzen hasi zen, gai baten inguruan filosofatzeko. Halako batean, udalari gutun bat idatzi zioten, eskatuz lorategiari izena aldatzeko, azalduz zertarako biltzen ziren, eta *Hipatia* zer zen. Eta udalak baietz. Ikasleek eurek murala marraztu zuten aurrera, eta izena aldatu zitzaion geroa. Horren omenez jarri genion izen hori hezkuntza eta pentsamendua uztartzen dituen gure sailari”, kontatu du Xabik. Josu Galdosen *Lur* ipuina ere bilduma horretan dago.

ILARGIKO ITSASOAK

Mandatuzko lanak zein proiektu propioak argitaratzeko bidea ematen die argitaletxeak, eta orain gutxi argitaratu dute beren uztako bigarren lana, *Mare* izenekoa. Orain arteko ekimenik kolektiboena izan da eta, *Hamaika Kutixi Filosofiko* bezala, hutsune bat betetzeko bokazioz sortua.

Gazteak poesiara hurbilduko dituen espazio baten falta sumatzen du Xabik, izan ere: “Haurrentzako poesia euskaraz idatzi duten egileak badira –Juan Kruz Igerabide, Yolanda Arrieta, Leire Bilbao edota Miren Agur Meabe, kasurako–, baina gazteentzat idatzi dutenak,

aldiz, apenas. Eta gertatzen da hurrek irakurtzen dutela poesia, jolas moduan, baina adin batera iristen direnean irakurtzeari uzten diotela, eta zer esanik ez idazteari –sariketaren baterako ez bada–. Aspalditik nuen buruan gazteak eta poesia elkartuko zituen zerbaitea, baina zerbaite berezia. Ilargiari buruzko artikulu bat irakurri nuen behin, eta hala jakin nuen garai batean uste zela itsasoak zeudela bertan, eta nahiz eta jakin den halakorik ez dela, oraindik ere itsaso izeneko eremuak daudela: heriotzaren itsasoa, bakardadearen itsasoa... Hemen agian gai bat daukat, pentsatu nuen neurekiko. Bururatu zitzaidan, era berean, Idoia Asurmendiren abesti bat ondo ezkonduko zela proiektuarekin; Jon Martinekin kafe bat hartu nuen, eta kantaren letra idazteko proposatu nion. Proiektuak hasieratik irudikatzea gustatzen zait. Lehen piezak kale egiten badit, agian dena kolokan jarriko da... Jonek erotu nintzela esan izan balit,

*“Egungo literatur
industrian, proiektu
interesgarri asko
gelditzen dira tiraderan,
ezohikoak direlako”*

Eneko Salaberria

liburua agian ez zen argitaratuko. Baina izugarri gustatu zitzaion”.

Hiru hitzaurre ditu *Marek*, eta horiek ere hasieratik zituen buruan Xabik. Lehen hitzaurrea zientifikoa da, Ana Galarragak idatzia; bigarrena filosofikoa,

Iñigo Martinez Peñarena; hirugarrena, berriz, literarioa, Joseba Sarrionandiak osatutakoa. “Hitzaurreak ez daude kasualitatez ordena horretan, zientziak informazioa ematen du baina ezin du dena esplikat. Zati filosofikoak dio gauza batzuk ez ditugula inoiz jakingo, eta hori ondo dago; azkenik, hori dago artea. Agian gauza batzuetara artetik soilik iritsi gaitzkeelako. Ikasle guztiek hiru dimentsioak dituzte beren baitan. Eta hiru dimentsioek partekatzen dute ezaugarri berbera: bilaketa. Zientzialariak zerbaite bilatzen du, filosofoak ere bai, eta artistak ere bai”.

Proiektua abiatzerakoan, 110 euskal poeta zerrendatu zituzten, jakinik 29 behar zituztela –ilargiaren zikloak 29 egun pasatxo irauten duelako, eta horri keinu egin nahi ziotelako–. Proposamena heldu zaien gehienek baiezkota eman dute. “Kanpoan geratu dira batzuk, eta pena eman digu. Jendeak sumatzen du gure ilusioa. Ez gara ohiko argitaletxea, eta badakite egingo duguna ondo mima-tuko dugula”.

ARGITALETXEAREN BI ADARRAK

Hutsune bat betetzeko sortu dute argitaletxea, baina, era berean, argi daukate materiala sortuz bakarrik nekez bultzatuko dituztela gazteak irakurtzera. “Produktua sortzea garrantzitsua da, baina batez ere nork eta nola bultzatzen dituen axola du. Aurten, haurren irakurle taldea jarri dute martxan herrian. Xabik egiten ditu gida lanak, eta 53 gazte apuntatu dira; izugarri da”, dio Enekok.

Antzera iruditzen zaio anaiak gazteari ere: “Beraiek eroso bizi dira tabletekin eta mugikorrarekin. Liburuak baino erakargarriagoak dira, eta hori onartu beharra daukagu. Hortaz, zuk iritsi behar duzu beraiegana. Liburu interesgarriekin soilik ez dira gazteak literaturazaleak; haiekin egon behar dugu. Eta hori irakasleena da, eta gurasoena, eta gizartearena. Gazteek beren kabuz liburuak hartzen zaila da”.

Literatura gizarteratzeko bokazioa du, hain justu, 1545 argitaletxearen bigarren adarrak. Argitalpenez gain, literatur ekimenak antolatzen dituzte herrian. “Liburua argitaratzea ondo dago, baina apalean geratzen bada, ez ateratzearen pareko da. Bernat Etxeparek esaten zuen ‘euskara, jalgi hadi plazara’ –argitaletxeak *Linguae Vasconum Primitiae* argitalpen urteari zor dio izena–; bada, gure leloa da ‘literatura, jalgi hadi plazara’. Bai hurre-





kin, bai gazteekin eta bai helduekin. Orain, gazteen irakurle talde bat sortu nahi genuke”.

Herrian bestela ere sumatzen den kultur mugimendu bizian beste urrats bat litzateke. Bi anaien arabera, pandemiatik hona saretze prozesu bat antzematen da kultur zaleen artean. “Idazleak, eskultoreak, arte plastikoetako jendea... Oiartzunen betidanik izan da kultur mugimendua, baina belaunaldi berriak oso indartsu datoz. Filosofia zale ugari ere badira. Agustin Arrietak *Gaueko eztabaidak* liburuan Oiartzun Atenas txiki bat dela dio, pentsa”. Zehaztu dutenez, joera hori indartzera dator laster osatuko den kultur etxea, eta hura dinamizatuko duen kooperatiba. “Proiektu publiko komunitarioa izango da, Azpeitiko Kultur Mahaia eredu duena, eta herritarra, sortzaileak eta elkarteak batuko dituen”.

MANTSO, BAINA ZIUR

Ez zaie ideiarik falta etorkizunerako. Garbi daukate, halere, lan erritmoak jasangarria behar duela izan. “Urtean bi edo hiru agian neurri egokia izan daiteke. Marek koordinazio lan handia

*“Hezkuntzan asko
kostatzen zaigu
pentsamenduari eta
poesiari denbora
eskaintzea; beste
erritmo bat da”*

Xabi Salaberria

eskatu du, eta pixka batean proiektu txikiagoekin segituko dugu”. Uxue Alberdiren ipuin bat argitaratuko dute laster, eta baita Irati Goikoetxeak idatzitako eta *Irrimarrak* –Irene Irureta eta Garazi Gorroño– ilustratutako beste bat ere, *Nor* izeneko, sexu identitatea gaitzat

duena. Haur literaturako album ilustratu bat ere bidean da, ingelesetik Garazi Ugaldek itzuliko duena.

Gainontzean, gustura dira bi anaiak elkarlanean. Enekorri ilusio berezia egiten dio argitaletxea Xabirekin partekatzeak: “Zain nago hurrengo harrikada zein izango ote den. Zure harrikada batek sekulako harrera duela ikustean asko betetzen zaitu, eta dena liburu batean gordeta gelditzen dela ikustea ederra da”. Xabi ere gustura dago aitaren bidea jarraitzen ari direlako. “Irakaslea naiz, baina beti literaturaren bueltan nabil: ikastolako liburu txokoko arduraduna naiz, ipuinak irakurtzen nabil egunero... Hezkuntzan asko kostatzen zaigu pentsamenduari eta poesiari denbora eskaintzea, beste erritmo bat eskatzen dutelako. Dena azkar eta dosi txikitik egitera ohitu gara, eta askotan ez dugu denborarik elkarrekin hitz egiteko eta hausnartzeko. Argitaletxe bat sortzea bera korrontearen kontrako ekinga bada, irakaskuntzan gai hauek lantzea are gehiago. Edonola, hainbestetan sentitutako hutsune hori betetzen saiatzen ari zarela ohartzeak asko betetzen du bat”. ●



LIBURUA

Apurtxo bat neoliberalak



DANI BLANCO

LURRAZ BESTE
GARAZI ARRULA RUIZ
 TXALAPARTA, 2023

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Benetan maite dut Stuart Hall-ek 1980ko hamarkadan idatzi zuen esaldi bat ezkerreko kontraesan mundutarrak ezin hobeto azaltzen dituenena. Hallek zioen (eta irriño maltzur batekin imajinatzen dut idazten): “Noski, denok gaude ehuneko ehun konprometituta. Baina noizean behin –larunbat goizez, agian, manifestaziora joan baino juxtu lehenago– Sainsbury's-era joaten gara eta, apurtxo bat, subjektu *thatcheriar* izaten gara”. Orain, kendu Sainsbury's eta jarri Eroski edo BM edo Carrefour edo Lidl edo El Corte Inglés. Bada, Euskal Herriko ezkerreko espekto luze-zabalaz jarduteko balio digu Hallek duela berrogei-bat urte idatzitakoak.


Literatura egiteko lehengai gisa har-

tu du Garazi Arrulak bizi dugun garai neoliberalaren izaera kontraesankor hori. Zortzi narrazioz osatuta dago Txalapartarekin argitaratu berri duen *Lurraz beste* eta 2017ko *Gu orduko hauek* liburuarekin hasitako bideari jarraitu dio idazleak. Onartu behar dut, Halli imajinatzen diodan irri maltzur berarekin imajinatu dut Arrula idazten behin baino gehiagotan.

Narraziogintzaren artearen erabilerririk trebeena gurutzatzen du liburua. Ipuinera itzulera behartzen zaituzten amaierak eta istorioetako bizitza-txatal xumeek balio dute errealitate neurtezin batez jarduteko. Kontradikzio eta paradoxen zero-gune anonimoetara garamatzate narrazioek. Alokatzeko pisu bilaketak etxebizitza inbertsio-on-

dasun bilakatu den garaian; laguntasun irekien arteko jeloskortasunak; familia ez normatiboen baitako maitasun normatiboak; kartzelatutako aitarekin eta pandemia garaiko amarekin harremanak; genero disidentziari lekua egiten dioten belaunaldien ulertuak eta gaizki-ulertuak egunerokotasunik arruntean egiten dute lekua.

Hala, kapitalismo neoliberalako afektuen eta desiren, jabetzen eta desjabetzeen izaera paradoxikoa ekartzen da literaturara etengabe *Lurraz besten*. Hallen pentsamenduak bezala Arrularen narrazioek oroitarazten digute gu guztion zertxobait dagoela proiektu neoliberalaren baitan. Ezer aldatuko bada, eseri beharko dugu egia apur horrekin denbora tarte batez. ●



MUSIKA

Ama ere erobat aske



IKER BARANDIARAN

Nazkatuta nago taldeen itzulere-taz" erantzun zidan ni baino zati bat gazteagoa den ezagun batek Ama Say taldeak maizago kontzertuak egiteari ekin diola esan nionean. Ama Say ez dela luzaroan isilik egon pentsatu nuen, eta, gainera, beti izan du zerbait beste taldeengandik bereizi izan duena. Oroimenak atzera 1990eko hamarkadara ekarri nau, eta gogoan daukat lagun batek oparitu zidan *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen* estreinako diskoa lehenengoz entzun nuenean hartutako sorpresa itzela; baita taldea zuzenean lehenengoz ikusi nuen aldia ere –Soraluzeko Gaztetxean 6nemen9 taldearekin batera–. A ze taldea! Euskara eta ingelesaren arteko joko irudimentsua, melodia sarko-

rrak, eutsitako eta tarteka askatutako energia, bat-bateko eztandak, umorea, kritika, hitz joko ugari eta Pixies-ekiko ahaidetasuna, besteak beste.

Distantzia apurtzeko egiten dituzten emanaldi gutxi batzuk ikusi eta gozatu ditut, eta egiaztatu didate esentzia, nortasuna, indarra eta umorea oraindik bere dituztela; eta, gainera, fitxaje berriekin –Karlos Osinaga *Txap* tarteko-energia gorantz doala.

Orain, inork gutxi espero zuenean hamar hatz beteko diskoa kaleratu dute Bonberenearekin, bi ekinalditan grabatutakoa; haien esanetan "gertatu behar ez zen zerbait posible bihurtuta". Aurrera doa taldea; hemen ez dago atzerapauso ezta nostalgirik ere, eta katalana ere batu dute entsaladara.



ERO BOMB

AMA SAY

BONBERENA, 2022

Matria pisutsua da, bortitza. Melodia malenkoniatsua gordetzen badu ere, distortsioak eta batez ere indarrak ez diote azalerazten uzten. *Egunero*, aldiz, jostariagoa da eta gogora ekartzen digu 90eko hamarkadako giroa: itsaskorra, distortsionatuagoa eta *Isla encantada*-ren trazan kiribildua. *Noise-an* behin instrumentalki askoz ere gogorragoa da, post-hardcore eta ia industrial lokatzatan erabat sartuta, Sheelac-en irmotasuna eta Portobello Bones-en mestizaia ditu baitan. *Ero bomb*-ek jarraitzen dio, Bonbereneari men egiten dion pieza *funky yonkee* eta tronpeta doinu ero eta zarpailarekin. Bukatzeko, *Izarrak zenbatzen* lainoen azpian eta organoaren ganean errezitatutako outro ederra da. ●



Udaberriari kantari

AMETS ARANGUREN ARRIETA

Pertsona axolagabeak soilik pentsa dezake txorien kantua berdina da beti" esaten zion Rosa Luxemburgek Sophie Liebknechti, lagunari kartzelatik bidaliriko gutunetako batean. Ez da beti berdina izanen, baina entzunez bakarrik ni behintzat ez nintzateke gai jakiteko zein ari den kantuan noiz. Dakidana da udaberriarekin batera hasi dela aurten kantuan Mirua eta aste eroa bukatzeko Oñatira egin dut azken momentuan igande iluntzez (orain deskubritzen ari naiz zer den autoa izatea, flipante). Bide batez Antixena ezagutu eta lagun zaharren batekin topatzeko aitzakia polita.

Gaztetxeko giroa, igande iluntzeko giroa da. Herriko gazteak (eta ez hain gazteak) batetik, taburete altuetan ipurdiak, *Cheetos* pandilla poltsak eskutik eskura pasean eta larunbateko juergatik erretiratu ez den baten bat bueltaka. Eta bestetik, herrikoak ez garen desubikatu gutxi batzuk.

Hirukote tolosarrak gogoz heldu dio eten unearen ondotik LP berria aurkezteko birari. Hasteko plaza erraza izan ez badute ere, motibatuta, pozik eta gustora aritu dira kanpora begira behintzat, eta ez da ohikoena izaten. Proba fasean dagoen *bossa nova* bat erakutsi digute primizian, *zuzenekoetan jotzen hasi gara, ikusteko jendearen sentsazioa zein den*. Niri gustatu zait. Gitarra akustiko eta elektriko bana daude eszenatokian aparailu digitalez gain, baina horiez harago, haien abestietan leku inportantea dute soka instrumentuek, izan intro gisa, izan kantuariarekin kontrapuntoan. Nabari da mundu horretatik datozela.

Iruñeko Beñatekin duten kolaborazioa eta *Iruñeko Tatxersen Goizean oskorri* kantuariaren bertsioa ere eman dituzte azaroan argitaraturiko LPko kantuetaz aparte. Aitortu behar dut orokorrean zaila egiten zaidala bertsioak gustatzea. Oso argi ikusi ohi dut noiz iruditzen zaidan bertsioak originala "gainditzen" duela eta

MIRUA

EGUNA: Martxoak 26

LEKUA: Antixena gaztetxea (Oñati).

noiz ez duen gehiegi aportatzen. Eta kasu honetan iruditzen zait Miruak ez duela erabat asmatu. Baina barkatzeko modukoa da, denok sentitu dugu tentazioa kantutzar hori bertsionatzeko.

Detailtxo hori alde batera utzita, jende honek oso ongi kantatzen du. Hori horrela da. Eta ez, ez naiz hasiko boomerkeriatan esanez *hain ongi kantatuta, ez dut ulertzen zergatik hainbeste efektu ahotsetan, txor txor txor...* Ez naiz hasiko, baina pixka bat bai. Eta ez bata bestea baino gehiago edo gutxiago delako, baizik eta inolako gehigarririk gabe hauek bezala kantatzen duenak (nire uste apalean) bide hori gehiago balia lezakeelako, beste batzuek egiten dutenaz aparte badutelako hori bereizgarri gisa. *Lili bat ikusi dut* kantuariaren bertsioaren lehenengo zatia egin dute hiru ahotsetan, garbi, eta gehiagoren gogoz geratu naiz ("gara", esanen nuke). Horrelako bertsio gehiago, faborez.

Ahal izatera, segi ezazue Miruaren hegaldia. ●



Hitz gezidunak

Gaia: Ikastolen jaiak 2023 (herriak)

ZUHAIXKA ABARTUA NAFARROAKO HERRIA	↓	SUBTANTZIA TOXIKOA LIBURU EUSKARRIA	↓	BI GEHI BAT	↓	DIUNEKO MALAYSIAKO ISTMOA	↓	ITURBURU, JATORRI SUFREA	↓	EUROPAKO UHARTEA KILOME- TROAK	↓	GOIBURUAN DESORDU, EZGARAI	↓
→		↓		IKUSPUNTU INTERJE- KZIOA	→	↓		↓		↓		↓	
NAFARROA OINEZ KALAMUA	→			↓				↓	→				
→								↓		DONOSTIAKO PLAZA OINARRIZKO EDARI	→		
OINAREN AZPIALDEA	→	INDIOAREN SINBOLOA ARABA EUSKARAZ	→					→				GALIOAREN SINBOLOA HERRI URRATS	→
→		↓						→		ERRAN ANESTESIKO MOTA	→	↓	
SEIGARREN MUSIKA NOTA DAGO	→			MOLUSKU JANGARRIA ETA OSO PREZIATUA				→					ESERLEKU LUZEAK ETA BIGUNAK
→				↓				→		APAIZ NAGUSI JUDU IRAOTU ADITZAREN ERROA	→		↓
...DASHEN, ETIOPIAKO MENDIA HISTORIAREN ARO	→	↓		ORDOTS ... COMMONS, ONLINE LIBURUTEGIA	↓	ZEREGINA ATOMO KARGATU	↓	BAT ERROMA- TARRA DAUKA (AL- DERANTZIZ)	→	... BAROJA, IDAZLEA R HIRUTAN	→		
→				↓		↓		↓		↓		FLUOR BI BOKAL	→
ZEURE ZUMARRAK DAUDEN EREMUA	→					IBILALDIA 500 ERROMA- TARRA	→					↓	
→						↓			NAHASTURA TRINKOAK	→			



Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			1		8			
7			9				3	
		4		8	2	7		5
	8					5	1	
		1		3				
	3	6					2	
6		7	8	5		3		
	9				1			6
		1		7				

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Izurri.
2. Lurrean hazia sartu.
3. Nafarroako mendizerra.
4. Sosa.
5. Nireak.

EBAZPENAK

1. HELDE
2. EREIN
3. LEIRE
4. DIRUA
5. ENEAK

SXS:

8	5	6	9	7	2	1	4	3
9	7	2	1	3	4	5	6	8
4	1	7	2	3	6	8	5	9
7	2	3	4	5	6	8	9	1
6	8	9	6	3	4	2	7	5
5	7	2	1	4	3	5	6	8
4	8	6	5	7	2	1	3	9
3	1	3	5	1	5	1	3	4
9	1	4	3	8	8	2	7	5
7	5	8	6	4	1	3	2	9
2	6	3	7	1	5	8	9	4

K	V	E	R	O	V	I	D	R	V	M	U	Z
V	O	R	O	V	A	N	D	O	N	O	Z	
F	I	R	E	I	A	V	R	I	O	S	I	H
O	I	P	I	L	A				S	V	R	
S	V	N	V						O		V	D
	R	E	T	E						V	T	
N	V	S	E							V	T	O
V	G		R	U						N	I	
O	S	E	V		V	N	V	U	H	I	R	V
T	E	B	R	E	V	I	R	R	V	X	T	E
E	L	D	E	O	M	S	U	K	I	O	V	L
L		E	V		D	H		L		O		

Palmira Dual Jiménez

@KERA_ELKARTEA



INTEGRAZIOA EZ, INKLUSIOA

"Integrazioak asimilazioa dakar eta inklusioak, aldiz, errespetua. Norberak behar du bere kultura libreki bizitzeko eskubidea eta askatasuna, betiere inorena zapaldu gabe. Baina inork norberarena zapaldu gabe ere". Hala egiten dio aurre Dualek egunerokoari. Etxean ikasketak egin dituen emakume bakkarra da. Ijitoak nondik datozen ezagutze-ko eta ijito herriarekin zer gertatu zen jakitea ezinbestekoa da bere iritziz. Eta horretan jarduten du, bai profesionalki eta baita bolondreski ere. "Ijitoen herria gaiztoa, iluna eta gizatasunik gabekoa dela azaleratu dute mendez mende, baina hemen gaude, eutsi egin dugu". Zorionez egoera aldatzen ari dela baieztatu digu irri txiki batekin.

"Antirrazista izan behar du feminismoak, bestela ez du ezertarako balio"

Estereotipoak apurtzen dituen emakumea da Palmira Dual Jiménez. 26 urteko neska gazte irundarra da, euskalduna eta ijitoa. Hamazazpi urteko kazetaritza ibilbidean, kazetari honek elkarrizketatu duen lehen ijitoa; aitortzeak ere lotsa ematen du. Ez dezagun uka, denok gara arrazistak eta baita ijitofoboak ere. Gure aurreiritziak garbitzeko egiten du lan Dualek Kera elkartean. Ijito herriaren jatorri, ohitura eta kultura ahantzi gabe, inklusioan sinesten du, benetako elkarbizitzan.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

Kerak badu euskaratik.

"Kerak" etxea esan nahi du erromintxelaz. Edo esan nahi zuen, desagerarazi egin zutelako. Euskara eta errumanieraren arteko hizkuntza bat zen erromintxela, eta gaur egun erabat galduta dago. Hitz solteak besterik ez ditugu ezagutzen bizirik gauden Euskal Herriko ijitoak.

Ijitoak ere euskaldunak baitzarete.

Dudarik gabe. Ehunka urte igaro dira Euskal Herrira iritsi ginenetik. Zoritxarrez gutxi gara, edo asko ez behintzat, baina geroz eta gehiago gara egunerokoan euskaraz hitz egiten dugunak. Ni irundarra naiz, Iru-nen erroto naiz, eta nik ere badakit zer den hizkuntza eta herri zapaldu baten parte izatea, bai ijito bezala, baita euskaldun bezala ere. Euskara ez da galdu zorionez, baina ijitoon dialekto asko eta asko betirako desagerrarazi dituzte. Niretzat, zure

galderei euskaraz erantzun ahal izatea oso berezia da.

Ijito bat elkarrizketatzen dudana lehen aldia da niretzat. Zenbat ijitofobia oraindik ere...

Askok, asko. Beti izaten da gehiegi. Euskal Herrian oso nabarmena zaigu oraindik, agerikoa da, eta ijitoak pisu asko duen motxila daramagu bizkarrean.

Jendarte eredu inklusibo batean sinesten dut, eta uste dut urratsak eman ditugula horretara bidean. Ijitoak berea errespetatua izatea nahi du, beste guztiek bezala. Sistema kapitalista honetan, ordea, bada-kigu oso zaila dela erronka. Baina horretan gabiltza, eta beste gai asko bezala, hezkuntzatik lan asko egin daitekeela uste dut. Historia ikasten denean, edota beste herrien inguruan hitz egiten denean, zergatik ez da inoiz ijito herriaz hitz egiten? Kultura ezberdinen egunak ospa-



"Neska gazte ijitoak sarri uste du ametsik ezin duela egin. Jaio, urte gutxiz eskolara joan, ezkondu eta berehala ama izan. Hori apurtu behar dugu".

tzen dituztenean, zergatik ez da guri buruz ere hitz egiten? Horretan jarduten dugu Kera elkartearekin.

Emakume ijitoen etxea eta elkarte feminista da Kera, hala definitzen zarete.

Ijito, emakume eta feminista; hirurak uztartzen ditugu, une oro. Gipuzkoa mailan antolatzen gara. Espazio eroso izatea nahi dugu emakume ijitoarentzat, elkar batuta ahalduntzeko, hausnartzeko, gure erreferenteak sortzeko, gure historia plazaratzeko... Eta feminista izan gabe, ez luke zentzurik izango. Gainera, feminismoaz ari garenean, argi dugu feminismoak antirrazista izan behar duela, bestela ez baitigu ezertarako balio, ez guri ezta emakume arrazializatuerei ere. Are gehiago, uste dut emakume zuri euskaldunari ere ez diola mesederik egiten. Norabide berean egin behar dugu arraun, denok batera.

Besteak beste, udazkeneko ijito herriaren topaketa antolatzen duzue

Euskal Herrian. Ezagunak dira Espainiako Estatu mailan.

Espainiako emakume ijitoen elkarte ugari elkartzen gara Bilbon eta Donostian, bereziki hemengo emakume ijito gazteei erreferenteak eskura jartzeko. Izan ere, neska gazte ijitoak sarri uste du ametsik ezin duela egin. Jaio, urte gutxiz eskolara joan eta ezkondu, eta berehala ama izan, noski. Umeak ere bat baino gehiago; eta zaintza, nola ez, emakumeon gain. Eskema hori apurtu behar dugu, eta horretan ari gara. Asko dira lanpostu bikaina duten emakume ijitoak, beren bizitza profesionala arrakastaz egitea lortzen ari direnak. Horiei ematen diegu ahotsa, gazteek hori ere ezagutu dezaten.

Emakumea, ijitoa, gaztea, prekaritatea...

Oso zaila izan daiteke aurrera egitea zapalketa horiek denak batera jasaten ari bazara. Begiak zabaldu behar ditugu. Emakume asko, baina zinez asko dago egoera horretan.

Amets egiteko eskubidea bereganatzen ari al dira emakume ijito gazteak?

Bai, badira oraindik ere ezezkotan daudenak, baina geroz eta gehiago dira hegalak astintzeko gogotsu daudenak.

Nire amak pianoa jo nahi izan du beti, baina amets hutsean gelditu zen. Ijitoontzat amatea oso zaila da, eta zer esanik ez emakume ijitoontzat. Ijito eta emakume izateagatik, eskubiderik gabe jaio garela uste du gehiengoak.

Pianoa jotzea zen zure amaren ametsa. Zertan amesten duzu zuk?

Erizain laguntzaile izateko ikasten hasi nintzen, baina ez nengoen gustura eta aldatu nuen. Batez ere orduan jarri nintzen ijito herri izaerari begira. Gogoan dut, institutuan nengoela, ijitoak laguntzen ari tzen zela emakume ijito bat, eta "nik hori egin nahi dut" pentsatzen nuela. Hori bazen amets bat, eta zergatik ez horri ekin? Kale dor Kayiko elkartearekin hasi nintzen lan txikiak egiten eta gaur egun, bai, nire ametsa betetzen ari naizela esango nuke. ●

Bizitza, bere erreproduzigarritasun teknikoaren garaian

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gutxienez 550 “seme-alaba” dauzkan esperma donatzaile baten aurkako salaketaren berri izan genuen prentsaren bitartez pasa den astean. Antza, Jonathan M. izeneko Herbeheretako gizon batek eskura eduki dituen klinika gehienetan bere aletxo jarri du, bai tulipanen herrialdean, baita atzerrian ere; eta, klaro, probabilitateen legeek agintzen dutena gertatu: emakume nederlandar pila batek baliatu dute haren isuria, pentsatuz gauza hauek ondo erregulatuta egongo zirela donatzaile beraren haziak dokierki erabil ez zitezkeen. Baina kaka zaharra, han intseminazio-kliniken gremioan *laissez faire* gehiegi dago; eta halako batean, parkean zure Frenkie de Jong txikiarekin jolasean hasi den beste haur horri itxura familiarregia hartzen diozu.

Katxondeo gutxi kontu honekin. Pentsa eduki ditzakeen inplikazioetan, oraindik ume diren pertsona horiek helduaroan sartzen direnean: senide biologiko batekin larrua jotzeko arriskua Tinderreko *match* bateko distantziara eduki dezakete. Eta harreman sexu-afektiboek dagokionez azken hamarkadetan, zorionez, aukerak asko ugaritu diren arren, inor ez da hasi exogamia modu orokorrean auzitan jartzen. Zerbaitengatik da. Borboien leinuan praktika horrek utzi dituen emaitzak ikusita, argi dago mundu guztiak begiratu behar lukeela bide hori segitzetik.

Bitxikeria, esango duzue. Bai, baliteke. Baina nik diot galdera asko airean uzten dituela kasuak. Adibidez: zergatik jokatu du horrela Jonathan M.-k? Duela bi urte, bere “eman eta zabal eza-zu” politika hedabideetan agertzen hasi zenean –arteak 100 bat umeren “aita”



DEON BLACK

“bakarrik” zela susmatzen zuten–, *New York Times* egunkariari azaldu zion “laguntza txiki bat emanda gauza oso handi batean” parte hartzeak motibatzen zuela. Eta noski, bere esperma hartzailen aldetik sentitzen duen “esker ona”, “sentimendu beroak” eta “umeeekin eta hartzailerekin partekatzen dituen oroitzapenak”.

Ez zekiat Rick, faltsua zirudik: jendea eskuzabaltasun, altruismo eta humanitatearekiko maitasun gradu batzuk gairatzen hasten denean, psikopata ote den pentsatzen hasten naiz. Gainera, kopuruan orain arte ezagutzen den kasurik deigarriena izan arren, Jonathan M. ez da multi-intseminazioan jarduteagatik salatu duten gizon bakarra. Haren kontra egin duen Donorkind elkarteak ugaltze-tratamenduen sektoreko hamar mediku ere salatu zituen

iaz, donatzaileenaren ordeztu beraien esperma erabili zutelako pazientee-kin. Eta horrelako notiziak icebergaren punta besterik ez diren sentsazioa burutik kendu ezinda nabil, beren geneak ahalik eta gehien zabaltzeko norgehiagokan ari daitezkeen ego hauskorreko gizonen oraingo teknologiek eskura dauzkaten aukerei bueltaka.

Jonathan M.-ri aitortu behar diot, beraz, etorkizunari hala moduz begiratzeko motibo bat gehiago eman didala: XX. mendean serie-hiltzaileekin izutzen ginen; XXI.lean, serie-intseminatzaileak bilakatuko dira, agian, ikartzeko arrazoi berria. Heriotzari beldurra dagoeneko oso lardaskatutako gaia baita; eta aldiz bizitzak, bere erreproduzigarritasun teknikoaren garaian, dardarka jartzeko moduko galderetara garamatza. ●

Lan deialdia

Ikus-entzunezko profesional bat behar dugu ARGIAN

Bideo edizioan eta kameralari gisa
eskarmentua duen norbait aurkitu nahi
genuke, taldean lan egiteko prest dagoena.
Beste alor batzuetan interesa eta gaitasunak
izatea ere baloratuko da: podcastgintzan,
diseinuan, gidoian, argiztapenean...

Behar teknikoak:

Bideo edizioa

Adobe Premiere + After Effects

Diseinua

Adobe Photoshop

Kameraren erabilera

Soinu arloko ezagutzak

Gidoigintza

Bidali CVak
apirilaren 23a baino lehen

multimedia@argia.eus

Dantzaz ele

Jantziak



Erakusketa

San Telmo Museoa

2023-03-28 > 2023-04-23



Atzokoak gaur

